



## **Egunkariak biltzeko auzolana**

Atakondoa eskola komunitateak egingen du, bero eraginkortasuna hobetzeko lanetan erabiltzeko / 13

---

**Ikasketak  
aukeratzerakoan  
esterotipoak  
baztertzeraz  
gonbidatu dute** / 5

---

**Donejakue  
Bideko Lagunen  
elkartearen  
Sakanako atala  
sortu dute** / 9

---

**CBASK-Jatormanek  
liga erabakitzen  
den azken fasean  
lan ona egiteko  
itxaropena du** / 17

---

**Igor Arrietak lehen  
garaipena eta  
Nafarroako 23 urtez  
azpiko txapelduna  
izatea lortu du** / 18-19

---

**Bingen Amadozen  
liburuaren  
aurkezpena izanen da  
maiatzaren 27an,  
Tximonenari** / 21

---

**Olatz Andueza  
musikariak  
'PamploSound'  
egitasmoan parte  
hartu du** / 23

**Eneida C. M. eta Alfredo A. I.** ALTSASU Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) udalerrri euskaldunen garapena aztertze-ko, ikerketa bulkatzeko, euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza handitzeko eta Iñaki Arregi euskaltzalea omentzeko, haren izena duen ikerketa beka sortu zuen. Lehen deialdian Garmendiak saria eskuratu zuen *Tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitze marko kontzeptuala, arkitektura eta metodologia* lanarekin; lan teorikoa, udalerrriak garatzeko estrategien ingurukoa.

#### Nolaz aurkeztu zinen?

Lehendik UEMArekin eta Udako Euskal Unibertsitatearekin harreman batzuk izan nituen. Tokiko garapenari buruzko kezka zegoela argi eta garbi zegoen. UEMak barne prozesua egin zuen beste erakunde batzuekin, Gipuzkoako Foru Aldundia eta beste. Udalerri euskaldunen gaiari sozioekonomiatik heltzeko kezka eta gogoia nabari zen. Ni lan akademikoa eta praktikoa gaiaren inguruan egiten ari nintzen, aurkeztea erabaki nuen, eta baliagarria baldin bada, ongi.

#### Zein da lanaren helburua?

Lehenik, sarrera bezala, udal euskaldunen eta arnasmune diren herrien sozioekonomia azterketa xumea egiten da. Eta ondorioa da udalerrri horietan hiru erronka daudela, eta hirurak bateragarriak izateko garapen eredu jakin bat sustatu beharko litzaitekeela: garapen endogenoa. Berezitasun batzuk ditu. Azken hiru hamarkadetan akademia literaturan hainbat korrontek erreparatu diote gertutasunari, tokiko ezaugarriari (identitatea, kohesioa...) eta aldagai positiboak dira lurralde konkretuetan sozioekonomia garapena sustatzeko orduan. Eta, bestetik, nire praktikan edo ibilbidean ikusi ditudanak. Teorian, akademiaren ikuspuntutik, ezinezkoak lirartekeen garapen prozesu batzuk posible izan direla ikusi dut; oso baldintza kaskarretan egon izan diren lekuak, zentroetatik oso urrun, gaizki komunikatuak...



Joseba Garmendia Albarracinek UEMAK emandako bekarekin egindako lana aurkeztu du. ARTXIBOA

# "Arnasmuneetan garapen endogenoa beharrezkoa da"

**JOSEBA GARMENDIA ALBARRACIN** EKONOMIALARIA ETA EHU-KO IRAKASLEA UEMAREN 'Lurraldea eta Hizkuntza. Arnasmuneen garapen jasangarrirantz' saioan erakundeak emandako bekarekin egindako lana aurkeztu zuen Garmendiak

Akademia ortodoxoak esaten dituenaz aparte, garapena arrakastatsu bihurtzeko beste patro batzuk daude. Faktore horiek guztiak ateratzen saiatu naiz. Azkenik, garapen endogenoko

estrategia bat zerotik eraikitze-ko metodologia proposamena egin dut, inguru horietarako edo edozeinetarako baliagarria dena. **Faktoreak eta hiru erronka aipatu dituzu.**

Lehenik, esan beharra dago udalerrri euskaldunak eta arnasmuneak kontsideratzen direnak (herri txikiak), berez, ez dutela inolako berezitasunik euskaldunak ez diren beste edozein herri txikire-

kin. Ekonomia garapen estrategia puruak diseinatu eta garatzeko orduan, ez dago desberdintzen dituzten sozioekonomia ezaugarriarik. Halako herriendako halako eredu propio bat behar dela esaten duenik ez dago. Soziolinguistika arazorik ez duten beste herrietan ere planteatu daiteke.

Bigarrenik, udalerrri euskaldunek daukaten berezitasuna da hiru erronka dituztela: sozioekonomikoa, demolinguistikoa eta soziokulturala. Hiru horiek bateragarriak izateko garapen endogenoa beharrezkoa da. Esaterako, udalerrri txiki hauetako batean planteatu daiteke kanpoko enpresa bat ekartzea, kolpean 200 lanpostu sortuko dituen. Horrek gure etorkizun materiala ziurtatuko du, baina, ekartzen duen arriskua da gure izaera propioa galtzea, kulturalki eta linguistikoki ahultzea eta abar. Orekak lortzeko garapen endogenoa planteatzen da.

**Euskaltasunak tokiko ekonomia estrategian ekarpena egin dezake. Nola?**

Hizkuntzak, euskarak, bi norabideetan jokatzen du. Batetik, garapen estrategia bat aurrera ateratzerakoan definitu behar diren ekintzetan ebaluatu behar da ere horrek demolinguistika eta soziokulturalako erronketan izanen duen inpaktua. Eta, bestetik, beste dimentsio batean, euskarak, kulturak eta abarrek neurri batetan identitatea sendotu egiten du eta kohesioa indartu egiten du. Faktore horiek guztiak oinarri on bat dira garapen endogenoko estrategia aurrera eramateko. Bestetik, euskarari edo demolinguistikari loturiko ekonomia jarduerak sortu baldin badaitezke, horrek ere beste faktore gehigarri bat ekarriko luke.

#### Adibideren bat?

Nik hiru adibideetatik asko ikusi dut. Bi oso leku txikiak dira, eta neurri batean baztertuta. Bizkaiko Lea ibarra, bost udalerrri dituen: Amoroto, Gizaburuaga, Aulestia, Mendexa eta Munitibar. Guztira 2.000 biztanle dira. Kezka zuten baserriak



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO  
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



husten ari zirelako, jendea eta gazteak hiriburura ikastera joaten ziren. Eta 60. hamarkada akaberan prozesu sozial bat hasi zuten. Gazte batzuk biltzen hasi ziren, zerbait egin beharra zegoela adierazi zuten, beraiek han bizi eta lan egin nahi zutelako. Sozioekonomia dinamika indartsua hasi zen, garapen estrategia bat aurrera ateratzeko udaletan alderdien arteko adostasunak lortu zituzten. Hasi ziren kooperatibak sortzen. Ondoren, 80ko hamarkadan, Leako Mankomunazgoa sortu zuten eta 1991 aldera industrialdea lortu zuten. Beteta dago, ez dakit hirugarren fasea egiten duten. Bilbon inork sinisten ez zuen industrialde bat eraiki zuten, momentu honetan erreferentzia dena eta beteta dagoena. Eta lortu zuten 400 lanpostu inguru sortzea. Sakanara ekarrira, hemen 5.000 lanpostu sortzearen pare litzateke. Han garapen agentzia dago. Sekulako lana egin dute.

Inguru hori Bizkaiko punta batean dago, zentroetatik oso urruti, autobietatik nahiko urruti, komunikabide txarrak dituzte, industria tradizioz gabe bere garaian, aireportuetatik, unibertsitateetatik, teknologia zentroetatik oso urruti. Literaturak esaten duenez, horrelako lekuetan, edo turismoan aritzen zara (Lekeitio ondoan dago) edo ez dago besterik. Eta, justu, beraiek industria prozesua egin dute. Beraiek lortu bazuten... Sakantzen Sareak hango protagonistetako bat ekarri zuen Sakanara, industrialdeko kudeatzailea izandakoa.

Zerainean kasua da bestea. Metodologikoki oso antzekoa da: parte hartzailea izan da, bertako eragileek bultzatu dute, bertako eragileek normalean kanpotik zerbait lortuko dutenaren edo arrakasta izanaren duenaren esperantza gutxi dute. Beraz, autoestimua handiarekin eta konfiantza prozesu handiarekin lortu zuten 200 biztanleko herri batean 50 lanpostu sortzea: kooperatibak sortu, materiadun ondareari balioa eman zioten, bertutudun zir-

**"HERRI EUSKALDUNEK HIRU ERRONKA DITUZTE ETA HIRURAK BATERAGARRI EGIN BEHAR DITUZTE"**

kuluak sortu zituzten turismoa erakarriz eta elikagaien eraldaketa eta salmentaren bitartez. Hainbat proiektu aurrera eramane zituzten.

Nire hirugarren iturria Goierriko garapen agentzia da, Goieki. Batez ere industriako enprekin lan oso polita egin du, enpresak elkarlanean jartzeko, teknologia erronkei eusteko, berrikuntzarako dituzten gaitasunak sustatzeko, nazioarteko azoketara elkarrekin joateko... Hor, eta beste leku askotan ere, praktika egoki batzuk daude. **Hor hizkuntzak zein leku hartzen du?**

Lea eta Zerain arnaguneak dira, eta dena euskaraz da. Eta Goierriko beti bilerak euskaraz egin ditut. Beste gauza bat da, nik uste, Lean eta Zerainean euskararen dimentsioa ez dutela ezta planteatzen. Hain naturala dute! Goierriren kasuan nik ez dakit euskaraz enpresetan sustatzeko garaian garapen agentziaren bitartez zerbait egin ote den. Baina, esaterako, erronka demolingüistikoa ezin daiteke jarri garapen agentzia baten ardura. Badaude beste eragile gehiago: erakundeak, herri mugimendua eta sindikatuak enpresen barruan euskararen erabi-

lera sustatu dezaketenak (enpresako euskaraz planak). Gai honetan lidergoa garapen agentzia batek eraman beharko lukeen? Zalantza handiak ditut. Garapen agentzia baten helburua da bertan dagoen ekoizpen egitura ziurtatzea etorkizunera begira, nahikoa lanpostu mantenduko ahal izanen dituela populazioak ez alde egiteko eta gazteek bertan kokatu ahal izateko. Gazteekiko edo migranteekiko hizkuntzaren transmisioaren erantzukizuna eta funtzioa beste batzuen esku egon beharko luke.

**Halako lan bat egin ondoren, zertan gelditzen da?**

Honetaz arduratu behar duten eragileekin hitzaldiak eta aurreikusiak daude. Bizi osoa daramat Euskal Herriko bazter guztietan hitzaldiak ematen. Leako eta esperientziak oinarri hartuta, metodologia proposatu nuen. Sakanako kasuarekin aukera izan nuen metodologia horrek funtzionatzen zuen edo ez, praktikan jartzeko. Ikusi dugu funtzionatu duela eta arrakastatsua izan dela. Gainera, hasierako oinarri kaskar batzuen gainean eraiki da eta, azkenean, lortu da zeuden oztopoak gainditzea. Hitzaldiak ematen segituko dut.

## "Sakandarrek ez dute baloratzen prozesuak izan duen arrakasta"

JOSEBA GARMENDIA ALBARRACIN EKONOMIALARIA ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Sakanan bizi izandako prozesua bertatik bertara ezagutzen du Garmendiak, buru belarri sartuta ibili baitzen.

**Sakanako krisi mahaia sortu zen, ondoren etorriko ziren garapen agentzia eta plan estrategikoa. Barruan ibili zinen. Nola ikusi zenuen bilakaera hori?**

Sakandarrak ez dira konturatzen ibarrean egindako prozesu guztiaz. Ez da baloratzen izan duen arrakasta, zein azkar egin den eta zein emaitza lortu dituen.

**Eta zergatik uste duzu horrela dela?**

Esaten dute euskaldunok ongi produzitzen dugula, lan fina egiten dugula, baina oso saltzaile txarrak gara. Ez dakit umiltasun faltsu batengatik edo, ez dugula egiten. Hemendik denbora batera ikusiko dugu prozesua zein garrantzitsua izan den. Ez dakit jendea kontziente den zer egin den eta zer zaila izan den. 2008an eta 2009an, krisi bete-betean, langabezia izugarri igo zen, 2.000 langabetura. Gizarte tentsioko egoera batean lortu zen hainbat eragile aritzea larrialdi mahaian. Zeuden sindikatuak, enpresariak, udalak, Sakanako Mankomunitatea, alderdi politiko guztiak, gizarte eragileak. Inork ez zuen sinisten hausnarketa prozesu horretan. Inork ez zuen sinisten historikoki liskartsuak izan direlako harreman guztiak: sindikatuak enpresariekin, sindikatuen artekoak, alderdi

politikoak beraien artean, gobernuen artekoak, udalek beraien artean... Inork ez zuen sinisten handik zerbait atera zitekeenik. Eta atera zen! Gainera, adostasun nahiko eta neurtu batekin. Hori 2011ko azaroan izan zen.

**Horrek zer ekarri zuen?**

Orain arte egin dena izan da, lehenik eta behin, oinarriak jarri. Funtsezko bi elementu daude: Sakanako Garapen Agentzia eta Sakanako Plan Estrategikoa, bide orri bat planteatzen duena. Gero lotu ahal izatea Nafarroako Gobernuarekin akordio bat, finantzaketa batez ere. Zeren garapen agentzia batek baliabideak ez baditu, nekez egin dezake aurrera. Eta momentu honetan sei edo zazpi langile daude lan fin bat egiten. Emaitzak ikusten ari dira.

Normalean prozesu hauek luzera begira egon behar dute. Esaterako, orain Goiekira joaten bazara esaten dizute: "2008ko krisia hobe eraman genuen 90eko hamarkadako krisiaren ondorioz egindako lanagatik, garapen agentziagatik eta". Emaitzak ematen ditu. Batzuk ez dira ikusgarriak. Baina ekartzen du enpresa asko sendotzea, elkarlanean funtzionatzea, erronka handiagoei eutsi ahal izatea, lurraldearekiko sustraitze prozesuak (batzuk emozionalak) sustatzea...

Horiek ez dira ikusgarriak. Baina garapen agentziaren bueltan gauza ikusgarriak daude:

Dinabide; Lizarragako mikro sarea; e-Hiera; Irurtzunen enpresek inbertsioa egin eta 200 lanpostu sortu dituzte; Etxarriko hiltzearen eraldaketa gunea egin; gobernutik inbertsioetarako ekarri duen dirua; gobernuaren eta Sodenaren inplikazioa garrantzitsua izaten ari da eta, eskertzekoa, behingoz, aurretik izandako Nafarroako Gobernuarekin eskualdea, neurri batean, baztertua sentitu baita; turismoan eta energia berriztagarrien eta eraginkortasun neurrien bitartez udalek aurreztutakoa. Horietan guztietan garapen agentzia aktibo garrantzitsu bat izan da.

Denborarekin gero eta joera handiagoa egonen da, hala espero dut behintzat, beste eragile batzuk dinamika horretan apustu irmoagoak egiteko. Garapena sustatzearen ardura udalak sustitzen baditu, udal batzuek badute jarrera ekintzaile hori, proiektu gehiago sortuko dira. Eta, beste aldetik, enpresen artean ere. Badagoelako enpresari belaunaldi bat autosufizienteak direnak, beti autosufizienteak izan direlako. Nik uste dut konturatu behar direla gaur egungo testuinguruan elkarlana funtsezko faktorea dela. Batez ere, mikro enpresa

**"PROZESU HAUEK LUZERA BEGIRA EGON BEHAR DUTE. IKUSTEN ETA IKUSTEN EZ DIREN EMAITZAK DAUDE"**

eta enpresa txikietan. Dauzkaten ahalak garrantzitsuak izateko. Hori elkarlanean bitartez egiten da edo, bestela, etorkizuna beltza izan daiteke. Hori orokorrean, gauza partikularrak egon baitaitezke.

**Zerk du garrantzia halakoetan?**

Horrelako prozesuak lurralde konkretuetan ezartzeak eskatzen du arduraren motxila eskualdeko eragileek hartzea. Hori ere Sakanan azpimarratzekoa da. Sakanan 2008-2011ko mentalitatea zen Nafarroako Gobernuari eskatzea eta eskatzea. Hori beharrezkoa da. Baina 2011n dagoen mentalitate aldaketa hori, gero galtzen joan dena. Eta hor egon dira Batuta, Sakantzen Sarea eta beste esperientzia batzuk. Egin dutena da: "ados, gobernuari eskatu behar zaio, berak garapena sustatzeko kompetentziak eta diru baliabideak dituelako. Baina, horretaz aparte, hemengo eragileek ere zerbait egin dezakegu". Nik uste dut "zerbait egin dezakegu hori" funtsezkoa dela.

Leako gerenteak eta Zeraingo esperientziako arduradun Jakoba Errekondok ez zuten elkar ezagutzen. Haiekin hitz egiten, biek esan zuten, oso-oso garrantzitsua dela, gakoa dela, autoestimua. Sinistea posible dela, sinistea bide onetik goazela. Uste dut, neurri handi batean, sakandarrok hori lortu dugula.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Desikasten

Heteropatriarkatua, zuntzeraino sartutako ezten pozoitsua gure jendartean. Gizonaren paper gogor eta lehiakorra aldarrikatzen duen pentsamolde zurruna. Gizona zer den zehatz mehatz dakiena, gizona ez dena gutxien duena. Haren arabera, gizona ez da ahula, gizonak ez du barkatzen, are gutxiago negar egiten. Bere inguruko lekua zein den argi du. Baita haien akatsak zeintzuk diren ere, eta zein zigor dagozkien azkar batean epaitzeko gai da. Hark dioena ez da gezurra, agian ez egia borobila, baina ez da gezurra. Ontasuna akatsa da harentzat, konfiantza amu bat baino ez, mesedea truke bat, barkamena mozerro bat. Kolpeak jasan baino arinago emateko gai da, lehenak bitan ematen omen duelako. Arkume inozoen aurrean otsoa da, oiloen artean azeria.

Emakumea ez da haren harrapakin bakarra, baina bai guztietan errazen antzematen dena. Emeenak dira haren ustetan latsa, pekatua eta ezjakintasuna. Harenak ahultasuna eta ahuldadea. Gizontasun duinera iristen ez diren haiek

## GURE ARTEAN DABIL, GURE BURUEN BARRUAN, DESIKASI BEHARRA DUGUN POZOI GARRATZA DA

identifikatzeko gai ere bada, otso izatera iritsi ez diren gizagajoak, mesprezua merezi duten izaki ez osoak. Askatasuna kontzeptu politiko bat izateaz gain, norbanakoaren erabaki eta bizitza hautua errespetatzea eskatzen duen ametsa da.

Kolonbiako kaleetan atxilotu eta bortxatutako neska; Iranen bere familiak hildako homosexuala; bikotekideek hildako emakumeak; matxismo oldarkor eta arriskutsuenaren adierazle dira. Gure artean dabil, gure buruen barruan, desikasi beharra dugun pozoï garratza da. Desikasten ikasten, etorkizun hobe baten bila.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## OBJEKTIBOTIK



Nerea Balda Sanjuan

@nerea\_balda



## Barearen ostean dator ekaitza 🎵🎵🎵



60  
-  
%80  
=  
12

### Guaixe Fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro berreskuratuko dituzu errenta aitortpenean. 2020ko ziurtagiria eskatu: admin@guaixe.eus edo 948 564 275, Foru plaza 23, l. solairua. (Altsasu)

# guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 948 562 107 (Faxa) 618 882 675

#### LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# "Ez mugatu markatutako estereotipoetara"

Sakanako enpresek eskatzen dituzten lanpostuak betetzeko ikasketetan ikasle gutxi daude. Lan merkatuaren eskaintza eta enplegarritasuna kontuan hartuz ikasketak aukeratzean genero joera ezabatzeko deia egin dute Lanbide Heziketa institututik

## SAKANA

"Lanpostu batzuk genero bati lotuagoak daude. Mito hori hautsi egin behar dugu". Iberica de Suspensiones enpresako giza baliabideetako teknikari Olatz Millan. "Estereotipoekin haustera animatzen zaituztegu. Gure buruari ez diogu mugarik jarri behar". Sonia Perez Sakana Lanbide Heziketa (LH) institututiko irakaslea. "Jende ausarta behar dugu, sozialki markatuta dauden estereotipoak hautsiko dituztenak. Erakuts dezatela edozeinek nahi duena ikasi eta horretan lan egin dezakeela, generoaren arabera bere burua lanpostu batean edo bestean sailkatu beharrik gabe" gaineratu du Millanek. Feminizatutako sektore batean, zaintza arloan, Aita Barandiaran adinduen egoitzan lan egiten du Kai Karasatorrek. "Bat gehiago" sentitzen da lantokian. Sakana LH institutuan mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza zikloa ikasitakoa da. "Ez da genero kontua, bakoitzaren izara da". Pozik dago lanean, jendea laguntzen. Gizonezkoei ikasketa horiek probatzeko gonbidapena egin die.

"Emakumezkoak ikasketa hauek egiteko pausoa ematera animatzen ditut. Oso polita da. Erakutsi dezatela lan batek berak



Yurena Arizaga Moran lantegian lanean. Izaskun Artigas. LH SAKANA

ere ez duela generorik". Azken horiek Yurena Arizagaren hitzak dira, ikastetxe berean, fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa ikasi zuena eta 2014tik hainbat fabrikatan lan egin duena. Arizagak gaineratu duenez, "Sakanako sektore dinamikoena zelako aukeratu nituen ikasketak, eta lan eskaintza gehien zuelako. Sektore maskulinizatua izan arren asko gustatu zitzaidan". Arizagak gaineratu duenez, "teknologiari eta aurrerapenari esker industriak ez du ahalegin fisiko handirik behar, eta ginonezkoek

bezala lan egin dezakegu". Hori guztiak ikastetxearendako Izaskun Artigasek egindako bideo batean jasotako lekukotzako batzuk dira. Gehiago jaso ditu.

## Bi egoera

Institutuko ikasketa buru eta orientatzaile M<sup>a</sup> Jose Oiarbide Izagirrek azaldu duenez, bi egoera sumatu dituzte: "alde batetik, Sakanako enpresa sareak asko eskatu arren, matrikula txikia duten heziketa zikloak daude". Perezek gaineratu duenez, "konturatu gara ziklo teknikoetan

gizonezkoak matrikulatzen direla gehien bat eta zaintzari lotutako zikloetan, berriz, emakumezkoak. Gizonezko ile apaintzaileak, zaintzaileak dauden bezala, emakumezko soldatzailak, ingeniariak edo mantentze teknikariak egon daitezke".

Oiarbidek Sakanan ikasi eta lan egin nahi dutenei "lanbidea aukeratzeko genero joera ezabatzea" gomendatu die. Orientatzaileak nabarmendu duenez, "garrantzitsua da aukeratzeko lanbidearen enplegarritasuna kontuan hartzea eta gure prestakuntza lan egin eta bizi nahi dugun tokiko lan merkatuaren eskaerara egokitzea". Sakanan apirilaren akaberan 1.215 langabe zeuden. Haietatik %56,46 emakumezkoak ziren eta %43,54 gizonezkoak. Oiarbidek azaldu duenez, langabeziaren feminizazioaren arrazoi bat da emakumezkoek egiten duten lanbide aukeraketa. Arlo profesional teknikoetako prestakuntzak emakumeen enplegarritasuna handituko luke".

Migel Anjel Jorgek, Altsasuko enplegu bulegoko arduradunak, azaldu duenez, "kudeatzen ditugun lan eskaintza gehienak prestakuntza eta esperientzia arlo teknikoekin dute zerikusia: ingeniariak, mekanizatuak, soldadura..." Jorgek gomendioa eman du: "zer ikasi pentsatzen ari direnek, eta bereziki emakumezkoak, seriozki aztertu dezatela gradu edo okupazio teknikoak ikastea". Eta gogoratu du Lanbide Heziketa ikasten duten ikasleen ia %100 lanean hasten direla.

"LH institutuak industria eta zerbitzuei zuzendutako prestakuntza eskaintza zabala du. Eskaintzak Sakanako Plan Estrategikoarekin eta ibarreko lan

eskaintzarekin bat egiten du. Horregatik, ikasketak despidetzean, ikasleak ikasi dutenean lanean hasten dira" azaldu du Perezek. Gaineratu duenez, "enpresek asko eskatzen duten profileko ziklo batzuetan ikasle gutxi daude. Beraz, haietan ikasten dutenek lan eskaintzak izanen dituzte bukatzean".

## Enpresatik

Millanek azaldu duenez, "industrializatuen dauden lanpostuetan lan egiteko emakumezkoak kontratatzeke zailtasunak ditugu. Jasotzen ditugu lan eskaerak, baina ez dute nahikoa kualifikaziorik. Gaur egun ekoizpen prozesuak automatizatuagoak daude eta, horregatik, bestelako prestakuntza behar da". Millanek argitu duenez, legez, tamaina jakin bateko enpresak berdintasun plana egin behar dute eta horrek emakumezkoak kontratatzea beharra dakar. "Emakumezkoak beste lankideei beraien balioa erakusteko betebeharrak etengabe sentitzen dutenez, lanean oso zehatzak dira". Enpresatik berdintasunerantz aurrera egitearen garrantziaz gatzigatu du Millanek.

"Sakanaren etorkizuna bermatzeko ibarreko industria langilez hornitzea ezinbestekoa da" esan du Odei Arregi Azpitartek, Sakanako Garapen Agentziako industria teknikariak. Gaineratu duenez, "aukerak badaude, Sakanan bizi eta lan egin daiteke zahartzarora arte".

**"ENPRESEK ASKO ESKATU ARREN, MATRIKULA TXIKIA DUTEN LANBIDE ZIKLOAK DAUDE"**

C.A. OSASUNA  
VS  
REAL SOCIEDAD



MAIATZAK 22, LARUNBATA

18:00-20:00

(IRRATIKO KONEXIOA 17:45EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia<sup>.EUS</sup>

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Trenaren aldeko erakunde sinatzaileetako ordezkariak. Ezkerrean Calleiras eta eskuinean Santamaria altsasuarrak. UTZITAKOA

# "Dirua behar den tokian gastatu behar da, orain gehiago"

**IÑIGO LEZA** ARABAKO TRENAREN ALDEKO PLATAFORMAKO KIDEA

Trenen sektorean ordezkariak duten CCOO, UGT, CGT, SF, SCF eta SEMAF sindikatuek eta Trenaren Aldeko Nafarroako plataformak akordioa sinatu dute

**Eneida C. M. / Alfredo A. I.** SAKANA Akordioaren sinatzaileek Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari eta Nafarroako Gobernuari Nafarroako trenbide garraio politika birbideratzeko eskatu diote. Hau da, egungo bideak egokitu eta hobetzeko oinarrituz, mota guztietako trenak ibil daitezten. Estatuan horren ereduak badaudela gaztigatu dute.

**Nondik heldu da akordio hau?**

Arabako Lautadako eta Sakanako trenaren aldeko eta AH-

Tren kontrako plataformak lantzen hasi ginen. Gero Arabako eta Nafarroako beste plataformekin adostu genuen. Burgosera zabaldu genuen Arabako zatia Burgos eta Gasteiz artean delako. Aurkeztu

**"DAGOENKO EUROPARA KONEKTATUTA GAUDE. BI ZABALERETARAKO TRENAK BADAUDE"**

arte zortzi hilabeteko lana izan da.

**Zer dio akordioak?**

Gaur egungo trenbideak berritu edo egokitu daitezkeela. Hori eginda, tren guztiak hortik joan daitezke, bai eskualdeak lotzen dituztenak, bai tren lasterrak ere. Sakanatik egunero pasatzen dira tren laster batzuk. Madriletik Valladolidera 200 km orduko abiadura pasatzen dira eta hemendik 160ra pasatzen dira. Guri berdin zaigu tren hori gaur egungo trenbideetatik 200era

pasatzen bada. Baina esaten dugu Abiadura Handiko Trenerako (AHT) bakarrik den beste trenbide edo korridore bat ez dela egin behar Berriain edo Urbasa magaletik, bargak apurtuz.

**Estatuarekin eta Europarekin loturak bermatuta leudeke horrela?**

Orain arte "gezur bat" saldu digute: AHTak behar zuela europar trenbide zabalera (1,4 metro trenbideko errailen artean). Hemengo trenbideek iberiar zabalera dutenez (1,6 metro), esaten zuten Europarekin ez geundela konektatuta. Teknologia aurrera egin du eta bi zabaleretara egokitzen diren trenak badaude. CAFek eta Talgok garatu dute teknologia hori, bogie aldakorrak. Dagoeneko Europarekin konektatuta gaude. Zabalera aldaketa egiteko garbiketa tunelen moduko batzuk behar dira. Halakoak jarri beharko lirateke.

**Zein da bi proposamenen arteko ekonomia aldea?**

Gaur egungo trenbideari paralelo den beste korridore bat egin nahi dute eta milaka miloi euro gastatu nahi dituzte. Gaur egungo trenbidea egokitzen eta hobetzen bestearen aurrekontuaren %10 edo %20 bakarrik gastatuko genuke. Dirua behar den tokian gastatu behar da, eta orain gehiago: osasunean, hezkuntzan... Ez gaude dirutzak gastatzeko! Egin nahi dituzten egitasmoak, bukatzen badituzte, 2050 urtean despedituko dituzte. Haiek ere hori ikusten ari dira. Horregatik, akordio honetan tren arloko sindikatu guztiak sartu dira.

**Ordezkaritza zabala lortu duzue.**

Nafarroaren kasuan tren arloko sindikatu guztiak sartu ziren. Haiekin landu genuen akordioa, teknikoak izatea nahi genuelako. Beti esaten digute gaur egungo trenbideak ez duela balio tren guztiak handik pasatzeko. Sindikatuetatik esan ziguten posible dela tren mota guztiak egungo trenbideetatik pasatzea (eskualdeko trenak, distantzia ertain eta luzekoak, abiadura edo prestazio handikoak eta merkantzia handiak). Aldi berean, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak esan zuen Zaragoza eta Teruel artean hobetu eta egokituko dutela tren mota guztiak pasatzeko. Eta gauza bera egingen dute Castejon eta Logroño artean dagoenarekin. Beraz, Logroño eta Castejon artea egingen dutena zergatik ezin dute Nafarroan egin?

## Akordioa aurkeztu dute

Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren ordezkarietako erregistroetan Nafarroako *Trenbide Garraioaren Aldeko Akordioa* aurkeztu zuten ostiralean. Akordio bera Araban eta Burgosen aurkeztu zuten, probintzia bakoitzaren errealitatera egokituta. Iruñean akordioa bi erakundeen erregistroa eraman zutenak izan ziren: Manuel Gomez (UGTko garraio arduraduna), Alberto Torrejon, (CCOOko trenbide-arduraduna), ADIFeko enpresa batzordeko SFko eta SCFko ordezkari Ernesto Reyes eta Juan Carlos Calleiras, Juan Ramon Ferrandis (CGTren estatuko trenbide-sektoreko arduraduna), Jose Javier Cortezon (SEMAFeko Nafarroako arduraduna) eta Mikel Santamaria (Nafarroa Trenaren alde plataforma).

**Beraz, eskatzen duzuenaren adibideak badaude.**

Nafarroan lanak hasi dira. UGTkoek galdetzen ziguten: eta zer egiten dugu orain arte egindako lanekin? Bide berde bat egingen dugu? Lan horiek herrietatik kanpo egin dituzte. Ez ditu herriak konektatzen, Tafalla, Erriberri, Azkoien... Guztiak ibilbidetik kanpo gelditzen dira. Aurreikusituen zutenaren %5 gastatu dute bakarrik. Oraindik lanak bertan behera uzteko eta gaur egungo trenbidea hobetzeko momentua da. Eta askoz gutxiago gastatuko genuke.

**Ohiko trenbidea baztertu egin dute?**

AHTn zentratzen ari dira, horretan ari dira diru guztia gastatzen. Eta eskualdeak konektatzen dituzten trenak bazterrean uzten dituzte. Akordioan hori ere aldarrikatzen dugu. Esaterako, Zaragoza eta Teruel arteko proiekturako beste 14 geltoki aurreikusituen dituzte. Lehen zabalik zeuden geltokiak atzera ere martxan jartzea. Esate baterako, trenak berriro Ziordian gelditzea. Guk halako tren geltokiak berriro zabaltzea, trenen maiztasuna handitzea aldarrikatzen dugu

ere. Azkenean, autoak errepideetatik atera behar ditugu eta, dagoen tokietan, tren mugitze-ko modu egoki bat da.

#### Dugun trenbidea baldintza onean dago?

Trenbide bakarra dago Nafarroan (Ziordia eta Gipuzkoako muga salbu, bikoitza dena). Baina bere garaian trenbide horren ondoan beste bat jartzeko tokia aurreikusitua zuten. Esaterako, Altsasuko tren geralekutik zuzira begiratuta, beste trenbide bat sartzeko espazioa ikusten da. Hori aurreikusita dagoenez, ez zen lanik egin behar, bakarrik trenbideak eta katenaria jarri behar lirateke. Inbertsio txiki batekin trenbidea ondoan bikoiztu daiteke. Horrela izanda, denbora pila aurreztuko litzateke. Gaur egun trenak elkarri aurreratzeko haietakoren batek Izurdiagako, Uharte Arakilgo edo Etxarri Aranazko tren geltokietan gelditu behar dira. Horrela denbora pila galtzen da eta, ondorioz, batzuek abiadurak txikiak dira. eta pixka bat gehiago egokituta mota guztietako trenak pasa litezke eta merkantzia gehiago garraiatu daiteke trenez, bai autoak, bai kamioiak gure errepideetatik ken daitezke.

#### Hemendik aurrera, zer?

Nafarroako Parlamentuan agerrialdia eskatuko dugu, talde politikoei akordioa aurkezteko. Batzuekin dagoeneko zerbait hitz egin dugu. Ez dute gaizki ikusten. Guk uste dugu gizarteak presionatu behar duela. PSN zalantzan dago. Ikusten du gaur egungo obrak pila luzatuko direla eta guk proposatzen duguna urte gutxi batzuetan egin daiteke. Eta, horrela, Nafarroan trenbide moderno edo eraginkor bat izan dezakegu. Tren sozial bat aldarrikatzen dugu, herri guztietan geldituko dena. Hibiburuak bakarrik lotuko ez dituen. Eta prezio egokia duena.

#### Zertan daude lanak?

Tafalla aldean lanak erritmo motelean ari dira egiten. Horrela urteak eta urteak kostatuko zaizkie. Uste dugu beraiek ere ez daudela oso konbentziturak. Zer egin, *impasse* horretan daude. Gizarteak eta ezkerreko alderdi politikoei bultzatzen badugu, uste dugu posible dela milaka eta milaka milioi euro horiek ez gastatzea horretan, beste lekuetan baizik. Eta ez izorratzea natura pila bat.

## Arakilgo Udala udarako peoi premian dago

Arakilgo Udalak jakinarazi du langabezian dauden pertsonak kontratatzeke deialdia eginen duela aurki. Udalaren zerbitzu anitzetako lantaldean peoi gisa lanean aritzeko izanen dira kontratazio horiek. Haien egitekoen artean izanen dira: udal eraikinen eta zerbitzuen mantentzea eta zaintzea, baso lanak edo zerbitzuak eska ditzakeen bestelako lanak. Beraz, egitekoen arabera kontratazioak eginen ditu udalak eta horien iraupena 3 eta 6 hilabete artekoa izan daiteke. Lanpostu horietan interesa dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, Nafar Lansaren, langabe gisa izena emana izan behar du.



Uharte Arakilgo herriaren etxea.

## Uharteko Udalak hiru langabetu kontratatuko ditu

Uharteko Udalak jakinarazi du bi egitekotarako hiru langabetu kontratatuko dituela. Alde batetik, Itxesiako igerilekuan udan sorosle lanak egiteko bi pertsona behar ditu. Interesatuak eginkizun horretarako beharrezkoak diren ikasketak eta titulazioak eskatuko zaizkie. Udan Uharte Arakilen sorosle izan nahi dutenek, gaur, ostirala, 14:00ak arte eman dezakete izena Nafar Lansarek Altsasun duen bulegoan.

Bestetik, Uharte Arakilgo Udala basolanak eginen dituen pertsona bat kontratatu nahi du. Lanpostu horretan interesa zutenentzako izena emateko epea atzo despiditu zen.

# Adin taldeen txertaketa ixten, eta zabaltzen

55 eta 59 urte artekoen txertaketa hasi da eta 70 eta 79 urte artekoena ixten ari dira. 1.454 txerto jarri dira aste honetan, guztiak Burunda mendebaldean. Bestalde, perimetro itxierarik gabeko lehen astea da eta elkarteak zabaltzea aztertzen ari dira

#### SAKANA

Osasunbideak jakinarazi duenez, Sakanan aste honetako txertaketa gune bakarra Altsasu izan da. COVID-19 gaitzaren kontrako txertoaren lehen dosia jasotzeko 55 eta 59 urte arteko 780 altsasuar, olatzagutiar eta ziordiar Burunda pilotalekutik pasa ziren atzo. Gaur, berriz, 70 eta 79 urte arteko 674 burundar izanen dira txertoaren bigarren dosia jasoko dutenak toki berean. Bai batzuei bai besteei ere erizainek Pfizer etxeko txertoa jarri diete besaburuan.

Bestalde, Osasunbideako arduradunek lehen dosia jaso ez duten 60 urtetik gorako pertsonen deia egin diete Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin harremanetan jarri eta txertaketa eguna lotzeko. Jende larriaren txertaketa itxi nahi baitu Osasunbideak. Horretarako, Osasunbidera mezu elektronikoa bidali ([vacunacion@navarra.es](mailto:vacunacion@navarra.es)) daiteke, edo 948 370 120 telefonora hots egin.



Erizain bat txertoa jartzen atzo.

#### Elkarteak

Nafarroako Gobernuak pandemiari eusteko neurrien artean elkarteak itxeko agindua eman zuen lastailaren 13an. 220 eguneko debekuaren ondoren, gaurtik aurrera elkarteak %30eko

edukierarekin zabaltzeko aukera eman du. Galdetu dugun Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko hainbat elkarteetako zuzendaritza batzordeak egun hauetan biltzekoak dira egoera aztertu eta erabakitzeko elkarteak zabaltzeko edo ez. Edukiera nola kontrolatu eta espazio komun garbiketa eta desinfekzioa nola egin izanen dira aztergai dituztenetako batzuk.

Badira beste elkarte batzuk pandemiak eragindako itxialdia hobekuntza lanak egiteko baliatu dituztenak, esate baterako, Lakuntzako Lakuntzako pertza. Lanak oraindik despidituko dituzte eta ondoren, beharrezko baimenak eskuratu behar dituzte atzera ere zabaltzeko ahal izateko. Bestetik, hainbeste denbora itxita egon ondoren garbialdi handia behar duen elkaririk ere bada. Hura egitean hilabete akaberan edo zabaltzeko asmoa dute, esaterako, Arruazuko Itur Gain elkarteak.

2019, 2020 eta 2021 jaiotako haurrentzat Ordu-tegiak eta zerbitzuak aukeran		Arbizu eta Lakuntzako udal haur eskola Uhalde kalea 2/g, 31839 Arbizu 948 567 009 <a href="mailto:info@kattuka.com">info@kattuka.com</a> <a href="http://www.kattuka.com">www.kattuka.com</a>
Haurraren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen proiektua	Haur hezkuntzako profesional taldea etengabeko prestakuntzean	
	Hezkuntza proiektu propioa eta berritzailea	
Garapena, helduarekin harremana eta jolas librea gure ardatza	Matrikula Maiatzaren 24tik 28ra	



Sakanaren luze zabalean makina bat txoko polit daude. ARTXIBOA

## Zein da Sakanako tokirik politena zuretako?

Euskaraz dakien edozeinek parte har dezake Sakanako Mintzakideren lehiaketan, tokiari buruzko azalpenak emanez eta tokiaren irudiak erakutsiz. Bideoak edo argazkia eta audioa 600 482 024 telefonora bidali behar da Whatsappez hilaren 31rako

### SAKANA

Parte hartzen dutenen euskara erabilera bulkatzeko, Sakanako Mintzakide programak beti jarduerak antolatzen ditu. Normalean antolatzen zituztenak pandemiarekin ezin egin eta lehia-keta antolatu du Mintzakidek: Zein da Sakanako tokirik polit edo atsegina? Euskaraz dakien edozeinek erantzun dezake galdara. Aitor Irigoien Irigoien Sakanako Mintzakideko arduradunak lehiaketaren nondik norakoak azaldu ditu: "bakoitza bere gustuko toki horretara joan beharko da eta han bertan bideo bat grabatu beharko du, eta, aldi berean, azaldu beharko du zergatik iruditzen zaien hura dela

ibarreko tokirik politena. Bestela, argazkia atera eta gero audioa bidali azalpena emanez".

Hori egin ondoren Whatsappez Mintzakideren 600 482 024 telefonora bidali beharko da. Irigoienek azaldu duenez, "tokiena subjektiboa da. Ez dugu kontuan hartuko zeinek hitz egin duen hobekien... Saria parte hartzaileen artean zozketatuko dugu". Mintzakideko materiala duen kutxa bat izanen da saria.

### Mintzakidez

Sakanako Mankomunitatearen eta AEKren programa da Mintzakide, eta helburua da jendeak euskara praktikatzeko. "Berdin da euskaldun zaharra edo berria

izan, edo aspaldi ikasitakoa eta ahaztuxea duena. Komunikatzeko maila pixka bat behar da. Mintzakide jendearekin elkar-tzean datza: kafea hartzeko, paseatzeko... Dena delakoa euskaraz praktikatzeko". Irigoienek gaineratu duenez, "guk jartzen dugun oinarria da astean behin ordu batez elkartzea da. Jendea nahi bezala antolatzen da: gehiagotan bildu, askotan ordu hori luzatu, bi astetik behin bildu..."

Gaur egun Irurtzunen, Arbizun, Altsasun eta Ziordian daude mintzakide taldeak. "Baina pandemiaren eraginez askoz ere talde gutxiago daude. Jende asko poteatzeko gelditzen da, baina tabernak itxita egotean non el-

kartu ez zuten. Positiboak hasi zirenean jendea beldurtu egin zen". Hala ere, Irigoienek gazti-gatu duenez, "Mintzakide taldeak sor daitezke urteko edozein momentutan, udako oporretan ezik". Irigoienek azaldu duenez, Mintzakideko talde batean parte hartzeagatik ez da ezer pagatu behar. "Fitxa bat betetzea eskatzen dugu, zenbat jende dagoen jakiteko eta haiekin harremanetarako bidea izateko".

Sakanako Mintzakideko arduradunak aurreratatu duenez, garagarriaren bigarren hamabostaldirako Aralarko santutegira bisita antolatu nahi dute. Arte aditu baten azalpenak entzuteko aukera izanen lukete bisitariak. Data aurrerago jakinaraziko dute. Ikasturtea horrekin des-pedituko lukete. Hala ere, "jendean udan libreago dagoenez, beti dago aukera Mintzakiderek euskara praktikatzeko eta taldeak martxan jartzeko. Beti ere, jendea biltzen bada. Guk gutxienez lau pertsona elkartzea aholkatzen dugu, elkarriketa on bat izan dezaten. Badaude hiruko taldeak oso ongi aritzen direnak. Azkenean, lagun taldeak balira aritzen dira".

### Kontakturako

600 482 024 telefono zenbakia,  
sakana\_mintza@aek.eus  
e-posta helbidea edo  
Sakanako Mintzakideak  
Facebook-eko profila,  
AEKren Itsasi euskaltegia  
(Altsasu, Gartzia Ximenez 43,  
948 468 258) edo Sakanako  
Mankomunitateko Euskara  
Zerbitzua (948 464 840).



Ekimena aurkeztu zutenekoa.


## Nafarroako subiranotasun aldarrikapena plazara

Sakandarrak larunbatean, 12:00etan, Altsasuko Foru plazan elkartzera deitu dituzte

### SAKANA

Nafarroako historiaren une garrantzitsu bat da 1.512 urtea. Gaztelako armadak herrialdean sartu eta konkistatu egin zuen, Nafarroan Gaztelaren borondatea ezarri. Hura ez zen orduko nafarren gogoko izanen, bederatzi urte pasa eta 1521ean okupatzaileen kontra egin baitzuen. Azken gertakari horren 500. urteurrena da aurten eta Nafarroa Berriz Altxa-Subiranotasuna askatasuna da herri ekimenak sustatu dute. "Noaingo batailaren 500. urtemuga baliatuz, Nafarroaren burujabetza eta erabakitze eskubidea aldarrikatu nahi ditugu, gizarte bezala ditugun erronkei aurre egiteko ezinbesteko lanabes moduan. Eta horretarako, bidezko helburuen alde hamaika aldiz altxatu den nafar gizarteari egiten diogu dei".

Sakandarrak Altsasura deitu dituzte. Foru plazan bildutakoak ezkila errepika entzunen dute lehenik. Ondoren, ekimenaren zabalkunderako Rotten XIII taldeak sorturiko kantua entzuteko aukera izanen dute. Ekimeneko ordezkarien hitzaldia izanen da ondoren eta, guztia despeditzeko, auzatea iragarri dute. Bestalde, garagartzaroren 19rako manifestazioa deitu dute Iruñean.



## Odola ematera joateko edo emaile egiteko deia

Odol osagai guztien erreserbak handitu behar ditu, bereziki A+ eta O+ taldeenak eta aferesi dohaintzak

### SAKANA

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak (NOEB) dei egin die herri-tarrei dohaintzak egiteko, erreserbak uda baino lehen handitu ahal izateko, ospitaletako eskar-rak gora egin baitu. Oraingo

honetan, A+ eta O+ taldeetako emaileei dei berezia egin zaie odola ematera joan daitezen, aurretik hitzordua eskatuz. Horretarako, Nafarroako Odol Emaileen Elkartearen, Adonaren, www.adona.es webgunean sartu

daitezke emaileak. Iruñean odola eman nahi dutenek 848 422 500 telefonora hots egin behar dute, han aferesia egin nahi dutenek 848 422 560 zenbakia markatu beharko dute eta herriz herri dabilen unitate mugikorrean odola eman nahi dutenek, azkenik, 848 420 573.

Herriz herri ibiltzen den autobusaren hitzorduak: garagarri-laren 9an, asteazkenean, Uharte Arakilen, 17:00etatik 20:30era eta garagarri-laren 10ean, ostegunean, Irurtzunen 16:45etik 20:30era.



# Donejakue bidearen lagunen elkartea sortua

Nafarroako elkartearen barruko atala da. Hurrengo bi hilabeteetan elkarteko kideak egiteko kanpaina egingen dute. Bazkietu nahi dutenek 'www.caminodesantiagoennavarra.es' webgunearen bidez egin dezakete

## SAKANA

Nafarroako Done Jakue Bidearen Lagunen Elkarteko presidente Jose Migel Rey Egiarretako Itsasperri ermitan zela, igandean ofizialki sortutzat jo zen aipatu elkarteko ibarreko atala. Reyk sakandarrei bazkide egiteko gonbidapena egin zien, "horrela, elkarteak urtean zehar antolatzen dituen jarduera guztien onuradun izan zaitezke". Elkarteko bazkide egiteko urtero, gutxienez, 20 euro pagatu behar dira. Reyk zehaztu zuenez, "sakandarrek elkarteari emandako diruaren erdia ibarreko atalari emanen genioke urte akaberan". Eta Sakanako atalari "bide ona" izatea opa zion.

Reyk gogorarazi zuen Donejakue bidea Sakanako Garapen Agentziaren ekimenez berreskuratuko dela. Bestetik, "Sakanako Donejakue bidea berreskuratzeke gogor lan egin dutenei eskerrak" eman zizkien. Elkarteko buruak aitortu zuenez, "poz handia sentitzen dugu Sakanako bidearen berreskurapenak Nafarroako Donejakue bideen eskaintza zabalduko duelako".

## Atzera begira

Sakana "historikoki bidegurutzea" izan dela nabarmendu zuen Reyk. Bordele eta Astorga lotzen



Jose Migel Rey erromes maskorra eta elkarteko zapia eskutan dituela.

zituen erromatar galtzada, gero Donejakue bidea bihurtu zena gogora ekarri zuen. Bide hark "persona eta ideia berriak ekarri zituen. Merkataritzari eta artisautzari bultzada eman zion. Arte forma berrien sarbidea izan zen". Reyk gaineratu zuenez, "Santiago apostoluaren hilobia Compostelan IX. mendean opatu ondoren, erromatar galtzada Donejakue bide gisa erabiliz, kristautasuna goiz sartu zen lurralde honetan".

Reyk zehaztu zuenez, Donejakue bidea Sakanan Oskiatetik sartzen

zen, ibarra zeharkatzeko. "Sakana bideko ibilbideak Europa eta Gaztela lotzen zituen". Elkarteko buruak gaztigatu zuenez, "Nafarroa hegoaldea musulmanen esku zegoenez, bide seguruenaren erromesendako. Baita merkataritari eta bidaiariendako ere". XII. mendera arte horrela segitu zuen: "lurraldeak berreskuratzearekin Donejakue bidearen trazatu nagusia Garestik eta Lizarratik eraman zuten". Sakanako bideak arkitektura ondare ederra ezagutzeko aukera emanen duela nabarmendu zuen Reyk.



Sarituak antolatzaileez inguratuta. UTZITAKOA

## Sexualitatea, gazteen ikuspegitik, film laburretan

Gozamenez film laburren lehiaketako banakako, taldeko eta gazteen sariak banatu dituzte

## ALTSASU

Gozamenez film laburren lehiaketak aurten *Sexualitate hozkadak. Sexu eta Harremani buruzko istorioak* leloa zuen. Haren bidez sexualitateari buruz hausnartzea eta haren gainean ditugun ideia eta ikuspuntu desberdinak adierazteko bidea eman nahi izan zaie 12 eta 30 urte arteko gazteei. Sakanako Gozamez, Altsasuko Udalaren laguntzaz, antolatutako film laburren lehiaketako sari banaketa egin zen ostiralean.

Lehiaketak hiru maila zituen. Talde batek egindako film labur onenaren saria (250 euro) Olaia Carabias Herrero eta Erika Diaz Duranek aurkeztutako *Poza ikusteko prest* lanarendako izan zen. "Gozatzen eta dantzatzen, irribarreak ateratzen", hala laburbildu zuten beraien lana. Banakako lan onenaren saria (70 euro) Cristina Matias Tapiak

eskuratu zuen *De colores para gustos* ikus-entzunezkoarekin. Irudien bidez islatu zuen ideia da: "gehien gustatzen zaidana egiten goza dezaket bakarrik, eta lagunartean ere goza dezaket, ondoan ditudanekin eta urrutien daudenekin".

Azkenik, [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) webgunearen bidez emandako botoek gazteen saria erabaki zuten. 400 bat ikuskatze izan ziren eta 116 boto eman ziren. Haietatik 57 Cristina-Ramona Mirceak jaso zituen, eta beraz, saria berarendako izan zen (100 euro). *Happy* lanaren bidez "zoriontsu egiten gaituena eta pandemiaren erruz bizitzen ari garen une zail hauek gozatzea" jaso nahi izan zuen. Mirceak sariketan badu eskarmentua, joan den urtean banakako saria eskuratu baitzuen. Sariak Javier Olló Martínez alkatea eta M<sup>a</sup> Carmen Goikoetxea zinegotziak eman zituzten.

**CONSTRUCCIONES ALZATE s.l.**

**ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.**

Zubeztia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
[www.construccionosalzate.com](http://www.construccionosalzate.com)

Zure edari banatzailea!

**Hijos de Goikoetxea**

Tel. 948 467 317 - 948 562 341 · Geltoki auzoa 11 · ALTSASU

**AUTOMOBILEN ASEGURUAK**

**GELDIEZINAK**

**%50** — 12 HILABETETAN ORDAINTZEKO PLANGINTZA

**2 HILABETE DOHAIN** — ONGI GIDATZEAGATIK

ARTEKO DESKONTUA

**MAPFRE**

948 563 354 | [jimazpr@mapfre.com](mailto:jimazpr@mapfre.com)  
San Juan 48 · ALTSASU



Udaberriko Tonbola iragartzen duen kartela establezimendu bateko atean.

## Saria duten erosketak egin daitezke establezimenduetan

Erosketak egiten dituztenek, erositakoaz aparte sari batekin atera daitezke, Udaberriko Tonbola martxan da

### SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE), Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Udaberriko Tonbola antolatu du. Hirugarren aldia da udaberriari halako kanpaina egiten duena. Haren helburua da ibarreko dendetan erosketak egitera bultzatzea, horrela, gertuko merkataritza eta herriak bizirik mantentzen laguntzeko.

Kanpaina hilaren 29ra arte iraunen du. Saritan 1.800 euro banatuko dituzte. Elkarteko kide den establezimenduren batean erosketak egiten duenak txartel

bat jasoko du. Aurreko urteetan tokatutako saria dendan bertan jasotzen zuen sarituak. Baina pandemiagatik Udaberriko Tonbolaren formatua aldatu behar izan dute elkartekideek. Beraz, txartel saritua dutenak ibarreko ostalaritzan kontsumitzeko bale bat eskuratuko dute. Horrela, COVID-19 gaitzak eragindako osasun krisiak gehien kolpatu duen sektorea, ostalaritza, lagundu nahi du SDOZEK. Bestalde, elkartek txartel guztien artean smart-tv bat zozketatuko du. Zenbaki saritua garagartzaroaren leian jakinaraziko du.

## DUELA 25 URTE...



### Euskal Bizikleta Sakanan

Txirrindulari tropel profesionala Sakanan barna ikusteko aukera izan zen Euskal Bizikletari esker. Elgoibar eta Etxarri Aranatz arteko 2. etapa Simoni Biascik irabazi zuen eta Alessandro Bertolinik zuen lidergoa. Hurrengo egunean tropelak Lakuntza eta Ondarroa arteko ibilbidea egin zuen. Lasterketa Sakanara ekartzeaz eta guztia behar bezala antolatzeaz arduratu ziren Aralar txirrindulari taldea eta Lakuntzako eta Etxarri Aranatzko udalak.

# Aluminio birziklatua ekoizten hasi dira Hydron

Birziklatutako metalari Hydro Restore izena eman diote eta bere konposizio-adierazpenarekin eta karbono-aztarnarekin merkaturatu dute. Ingurumen Adierazpena ere badu produktuak, txatarraren edukia eta jatorria adierazten duena

### IRURTZUN

Hydro konpainiak jakinarazi du Irurtzungo lantegian Hydro Restore, aluminio birziklatua ekoizten hasi dela. Enpresatik azaldu dutenez, "aluminio birziklatua-erendako kontzeptu bat da, erabili den txatarraren edukia, jatorria eta prozesamenduak ingurumenean izan duen eragina gardentasun osoz ezagutzeko aukera ematen duena". Produktu berriarekin merkaturatu "bereizi" egin nahi du konpainiak.

Hydro Extrusion Iberiako presidenteorde Ana Vazquezek gaineratu duenez, "hirugarrenek ikuskatutako Produktuaren Ingurumen Adierazpen baten bidez, txatarraren edukia eta nondik datorren erakusten du". Izan ere, Hydro Restore sortzeko bi tokietatik hartzen dute birziklatzeko aluminioa Irurtzunen. Batetik, industria prozesuetan sortutakoa, kontsumitzailearengana azken produktu gisa iritsi ez den (kontsumitu aurreko txatarra). Eta, bestetik, bizitza erabilgarria izan duten elementuak, esate baterako, automobilgintzako pieza edo eraikin baten fatxadako osagaiak (kontsumitu ondorengo txatarra).

Esaterako, Hydronen Irurtzungo lantokian prozesatzen den Hydro Restoreren aluminioaren %80 birziklatutako aluminioa. Haren %34 kontsumitu ondorengo aluminioa da, eta %46 kontsumitu aurreko txatarra. Enpresatik azaldu dutenez, "Hydro Restoreren beste ezaugarri bat da ekoizpen prozesuan sortu den karbono aztarna ezagutzeko aukera ematen duela, Produktuaren Ingurumen Adierazpenaren bidez ziurtatua. Horrela, balio kateko beste konpainia batzuek datu hori erabil dezakete produktuari buruzko beren ingurumen adierazpenak sortzeko eta erosten ari diren produktuek duten eragina bezeroei gardentasunez erakusteko".



Langilea urtutako aluminioarekin lanean. UTZITAKOA

## INDUSTRIAKO TXATARRA ETA ERABILGARRI IZANDAKO ELEMENTUEKIN EGINA

Vazquezek aitortu du Hydro Restore merkaturatzeaz "harro" daudela, "gure Produktuaren Ingurumen Adierazpena oso emaitza onekin osatu ondoren, bai gure aluminio birziklatua-erendako, bai gure profilendako, eta horrek jasagarritasunera bideratutako eta aluminioaren birziklapenean aitzindaria den enpresa gisa dugun posizionamenduari laguntzen dio". Gaineratu duenez, "gainera, ekonomia zirkular eta tokiko eredu baterantz aurrera egitea ahalbidetzen du, txatarra jatorritik gertu jaso eta birziklatu baitaiteke". Irurtzunez aparte, Portugalen, Avintesen, birziklatzen dute aluminioa.

### Metal iraunkorra

Aluminioa material iraunkortzat hartzen da, birziklatzeko erraza delako eta prozesuan zehar be-

rezko ezaugarriak galtzen ez dituelako. Gainera, birziklatze prozesuak aluminio primarioa ekoizteko behar den energia %95 murriztea ahalbidetzen du, balio hori beste metal batzuen bano askoz handiagoa baita. Gaur egun, Europako aluminioa kontsumitzeko premien %20, gutxi gorabehera, material birziklatuarekin asetzen dira, baina 2050erako %50 inguru izango dela kalkulatu da.

### Hydrori buruz

Hydro aluminioaren sektoreko konpainia da eta 35.000 langile ditu kontinente guztietako 40 herrialdeetan, eta tokiko esperientzia, irismen globala eta Ikerketa eta Garapenerako gaitasun paregabeak uztartzen ditu. Aluminio primarioaren ekoizpenaz, produktu ekoiztuz eta birziklatuaz aparte, Hydrok bauxita ateratzen du, errefina alumina eta aluminioaren industriako 360° konpainia bakarra izateko energia sortzen du. Konpainiak Norvegiar du egoitza. Hydro Extrusion konpainia liderra da Espainian eta Portugalen, aluminio estrusiozko soluzioak hornitzen eta birziklatzen.

# Udal jardueretan izena emateko garaia iritsi da

Altsasuko Udalak antolatzen dituen 'Aisiaz blai', gazte jarduerak, kirol eskolak eta musika eta dantza eskolan izena emateko epea maiatzaren 26ra arte dago zabalik. Gazte jardueren eta kirol eskolen kasuan garagarriaren 4ra arte

## ALTSASU

Altsasuko Udalak aldi berean zabaldu du udarako jardueren eskaintza eta heldu den ikasturteko kirol eskola eta musika eta dantza eskolan izena emateko epea. Gazteria, Ludoteka, Kirol eta Musika Zerbitzuek prestatu duten eskaintza horren berri ikastetxeen bidez etxeetan jasoko da eta, bestela, [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) webgunean ikus daiteke. Aurtengo berritasuna da triptikoaren orrialde berezi batean, parte hartzaileei eta familiei gogorarazi zaiela haureta nerabe osasuntsuak izateko funtsezkoa dela mugitzea eta kirola egitea, fruta eta barazki asko jatea eta koipe eta azukreen kontsumoa murriztea. "Hori pentsatzera animatzen zaitugu, erosketak egiten dituzunean", esan dute zerbitzuetako arduradunek.

## Udako eskaintza

Ikasturtea bukatu berritan lana eta familia kontziliatu nahi dutenendako eskaintza da *Aisiaz Blai*. Garagarriaren 22, 23, 24, 25, 28 eta 30ean garatuko da 08:30etik 13:30era, ludotekan, 3 eta 12 (2009-2018) urtetako haurrei zuzenduta dago. Aisialdi eskaintza hori garilean eta agorrilean ere egiten du udalak. Bi hilabete horietan 4 eta 12 urte arteko (2009-2017) haurrei zuzenduta.



Yoseikan budoko ikasleen erakustaldia. ARTXIBOA

09:30etik 13:00ak bitartean izanen da garilean eta agorrilean, berriz, 10:00etatik 13:00etara. Bi hilabete horietan hamabostaldika eman daiteke izena.

Bestalde, Intxostiapunta gazte guneak aurki udako ordutegia hartuko du. Hala, garagarriaren 7tik irailaren 24ra 18:00etatik 20:00etara egonen da zabalik astegunetan. Gazte Informazio Gunean, berriz, ohiko ordutegiarekin segituko du, 07:30etik 15:00etara. Gazteendako aisialdi eskaintzari dagokionez, *Udagazte* herri kanpaldia 12 eta 16 urte

arteko gazteendako dena, garilaren 12tik 23ra izanen da, 10:00etatik 13:00etara. Gazteei zuzendutako eskaintzen artean daude: ur festa goxoa, Hiri Dantza (garilaren 8an), kabareta (garilaren 15ean), Donostiako hondartzara irteera (garilak 27), arratsaldeak naturan (agorrileko astearteak) edota aniztasun funtzionalak dituzten gazteendako zuzendutako *Gu Geu Gazte* programa (garilaren 5etik 29ra).

Kirol eskaintza 13 kirol eskolek osatzen dute: atletismoa, taekwondo, gimnasia erritmi-

koa, yoseikanbudoa, tenisa, saskibaloia, futbola, igeriketa, patinajea, txirrindularitza, eskupilota, emakumezkoen pala eta erremontea. Azken hori berritasuna da eta 13 eta 15 urte arteko neska eta mutilei zuzenduta dago. Udalaren asmoa da kirol eskoletan emakumeen parte hartzea handitzen jarraitzea, batez ere maskulinizatuen daude kirolean. Horregatik, emakumezkoen pala eskaintza nabarmendu dute zerbitzuetik: adinaren arabera bi talde izanen dira, baita emakumezkoen esku pilota taldea ere. Horregatik guztiagatik, neskak pilota eskolan parte hartzea eta probatzera animatu dituzte. Arrazoi berregatik 2009 eta 2011 urteen arteko neskei futbol eskaintza probatzeko gonbidapena egin diete. Helburua emakumezkoen futbol 8ko eta futboleko talde bana sendotzea litzateke.

Arlo horretako beste berrikuntza gazteen erronka jarduerara da, 2006 eta 2009 urteen artean jaiotakoei zuzenduta. Erronkak eta ekintza anitzak beste aukera bat eskaintzen diete kirol eskolei jarduerara fisikoa egiteko, pediatriaren arlotik jarraipena egiten zaie eta haien helburua bizimodu osasungarria eta aktiboa sustatzea da.

## Igeriketa

Zelandi kirol gunean ikastaro trinkoak izanen dira garagarriaren 7tik 18ra, astegunetan. 40 minutuko saioak izanen dira. Bestalde, bazkide egiten direnak kiroldegiko edo Dantzalekuko igerilekuak erabiltzeko aukera izanen dute. Azken horiek garagarriaren 21ean zabalduko dituzte, hobekuntza lanak egin ondoren. Zelandiko bazkide ez direnak Dantzalekuko igerile-

kura sartzeko eguneko edo hila-beteko txartelak dituzte aukeran.

## Izena ematea

948 012 012 telefonora hots egin edo aipatu webgunean sar daitezke interesa dutenak. Musika ikasketen kasuan, ikastetxean bertan egin daiteke, edo 948 564 581 telefonora hots eginez. Eskaintza batzuen matrikulan hobariak daude errentaren arabera.

## Dirulaguntzak kirol elkarteendako

Kirola bultzatzeko eta zabaltzeko herriko kirol klubei eta elkarteeri dirulaguntza emateko dirulaguntza deialdia onartu du Altsasuko Udalak, guztira, 20.000 euro banatuko ditu. Dirutza hori hiru jarduerara desberdinetara bideratuko ditu. Batetik, 12.400 euro 16 urte bitarteko programa. Bestetik, 7.000 euro arte kirol ekitaldien antolakuntzarako eta, azkenik, beste 600 euro 16 urte arteko jardueretarako. Udalaren deialdira aurkeztu daitezke herrian egoitza duten klubak edo bere jarduerara nagusia Altsasun bertan egiten dutenak. Elkarteek dirulaguntza eskabideak udaletxean edo udalaren erregistro telematikoan garagarriaren 18ra arte aurkez ditzakete.



Ondarria Poligonoa Pab.6 / 31800 ALTSASU / Nafarroa



# ZURE PUBLIZITATEA

# HEMEN



Informazio gehiago:  
948 564 275 | 661 523 245  
publi@guaxe.eus  
guaxe.eus/publizitatea/





Atakondoa ikastetxean 190.000 egunkari bildu nahi dituzte. ARTXIBOA

# "Eskolan 190.000 egunkari bildu nahi ditugu"

**IÑIGO ZAMARGILEA RIVAS** ATAKONDOA ESKOLA PUBLIKOKO ZUZENDARIA

Bakarren batek pentsa dezake kazetaritza aztertzeke klaserako gehiegizko ale kopurua izan daitekeela. Ez da horretarako, ikastetxeko bero eraginkortasuna hobetzeko baizik

**Alfredo Alvaro Igoa** IRURTZUN

Udalaren jabetza den eskola publikoan urtero hobekuntza eta berrikuntza lanak egiten dira Atakondoa eskola publikoan. Azken urteetakoak energia eraginkortasuna hobetzea helburu dutela azaldu du ikastetxeko zuzendariak. Horren barruan dago martxan jarritako auzolana. **Zein lan eginen dira aurten ikastetxean?**

Egiteko dauden lanen artean daude patio berria errematatzea eta margotzea. Hori, seguru aski, uda aurretik eginen da. Eta uda sartuta, eskola hutsik eta ikaslerik gabe dugunean, udalak abiatu duen proiektu bat dago, eta, noski, gure jarraipena izanen

duena: eskolari isolamendu termikoa jartzea.

**Zergatik halako isolamendua?**

Eskola, Irurtzungo Udala bezala, azken urteetan buru belarri sartuta dago energia eraginkortasunean eta, oro har, ingurumena errespetatzeko lanean. Norabide horretan hau beste pauso bat da. Aurreko ikasturtean panel fotovoltaikoak jarri zitzaizkigun energia erabat berriztagarri eta garbia izateko eskolan. Instalazio eta hargune elektrikoan hainbat lan egin dira. Oraingoan beroeraginkortasuna hobetu nahi dugu eta, erraz esanda, gutxitu eskolatik eskapo egiten duen bero kopurua.

**Zein lan mota izanen da?**

Paretetan eta teilatu azpian zelulosa sartuko da. Aldez aurretik, eskolak bat egin du ekimen horrekin, eta lehengai hori biltzen hasiko gara. Paretetan txertatuko dugun zelulosa eskolan bilduko ditugun egunkari papereetatik aterako baita.

**Eskola komunitate guztia egunkari bilketan jarri duzue?**

Horixe! Ikasleak beraien etxetatik egunkariak aste honetan ekartzten hasiko dira. Azpimarratu beharra dago egunkari papera besterik ez dugula bilduko. Egunkari paper hori astean behin biltegitratuko da. Ondoren, oker ez banago, Beriaingo lantegi batera eramane da. Han zelulosa egunkari papereatik at-

rako da eta zelulosa hori udan bueltatuko da eskolara.

**Astean behingo bilketa noiz eginen duzue?**

Ostegunetan. Baina hori da udalak astean behin eginen duen bilketa. Gela bakoitzean adostuko dute paper hori egunero nola bildu. Nola elkartu dena, ez ibiltzeko jaisten eta. Gela bakoitzak izanen du autonomia hori antolatzeke.

**500 bat ikasle zarete. Egunkari asko bildu ditzakezue, nonbaiten gorde beharko dira!**

Ez dakit lortuko dugun, baina asmoa dugu 190.000 egunkari biltzea. Helburu handi xamarra da. Gure aurreikuspenen horri lekua bilatu behar zaio. Guk astean zehar eskolan biltegitratuko ditugu eta, ondoren, udal biltegi batera joanen dira egunkari guztiak. **190.000 egunkari. Erronka zenbaiten bete nahi duzue?**

Hilabete bat emanen dugu horretan.

**Gero lantegira eramateko. Behin hasita, ikasleek egunkari horien arrastoari segituko diote?**

Udalarekin adostuta dugu lantegira bisita batzuk egitea. Ezin 500 ikasle pasa eraman, baina talde batzuk hara hurbilduko dira eta prozesua *in situ* ikusiko dute: beraien egunkariei zelulosa hori nola ateratzen zaien ikusiko dute, eta nola ekoizten den gero paretetan txertatzen den lehengai hori.

**Heldu den ikasturtean goxo-goxo eta bero egoteko.**

Pentsatzen dugu goxotasun berbera izanen dutela. Baina aldaturiko dena da zenbat gastatzen dugun berogailuan eta zenbat CO<sub>2</sub> isurtzen dugun. Azken urteetan eskolan egin diren lanei esker pasatu gara 2012an 400 tona pasa CO<sub>2</sub> isurtzetik 2020an 191 isurtzera. Beraz, erdia baino gutxiago. Eta hiritarrei asko inporta zaien gastua murriztu egin da: 2012ko 41.000 euro gastatzen ziren eta 29.000 euro gastatzen pasatu gara. Hobekuntza begi bistakoa da. Bero eraginkortasun neurriekin kopuruak gehiago murriztea da asmoa. **Lanak egiteko erabakia ikastetxetik, guraso elkartetik, udaletik, nondik sortzen da?**

Lan horiek guztiak udalak duen estrategia plan baten barruan sartzen dira. Eskola udalaren jabetza da. Guk lan horiek guztiak errazten ditugu, babesten ditugu eta, aukera dagoenean, modu praktikoan gehitzen gara, kasu honetan egunkariak biltzen.

**Nola hartu dute ikasleek eta familiek egunkari bilketarena?**

Aste honetan jarri dugu martxan proiektua. Eta, momentuz, ez dugu ez familien ez ikasleen inongo feedback-ik eskuratu. Hurrengo egunetan jasoko dugun informazio bat izanen da hori. Ailegatu zaigun informazioa da ikasleek gogo onez hartu dutela ekimena. Baina oraindik ez dugu egunkaririk jaso. Martxan jarri berri dugu proiektua, ez dugu betarik izan egiaztatzeke harrera hori praktikan zertan gauzatuko den. Itxura ona, behintzat, badu.

**Gerta daiteke eskola komunitateko kideak ez direnak ere animatzera egunkariak ematera!**

Hori da familiei eskatu zaien zerbait, ekimena pixka bat hedatzea. Batez ere egunkari bilketa hau auzo lagunei, familiako beste pertsoneri eta, oro har, ahalik eta jende gehien sartzea. Proiektua eskola komunitateak gauzatuko du, baina zenbat eta laguntza gehiago izan, orduan eta egunkari gehiago bilduko ditugu eta errazago izanen da dena.

**Herri guztiari birziklatzeari buruzko lezio ederra ematen ari zarete.**

Ez dakit gu horretan, eta beste ezertan, inori lezioak ematekoak garen. Atari bat zabaldu dugu, norabide positibo batean lan egiteko. Eta, noski, bide horretan lagundu nahi duten guztiak ongi etorriak izanen dira.


## Aurrekaria

Irurtzundarrak halako auzolanak egiten eskarmentua badute. Duela 50 urte irurtzundar gazte talde bat Erga mendira igotzen hasi zen igandero. Helburua: Ergako Trinitate ermita eta aterpea konpontzea. Lanak urtetan luzatuko ziren eta haiek finantzatzeko moduetako bat "papera operazioa" izan zen. Gazte haiek egunkariak eta kartoia jasotzen zituzten etxetan. Eta, batez ere, pentsuaren paperezko zakuak. Horiek inguruko herrietako abeltzainei eskatzen zizkieten. Kamioia betetzeko adina zutenen Uharteko Iruñeko paper fabrikara eramaten zuten. 1973tik 1988ra egin zen bilketa eta haren bidez 113.430 pezeta (681,72 euro) lortu zituzten, ordurako dirutza.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 21


**IRURTZUN Transitos Amico konpainiaren dantza eta antzerki ikuskizuna.**

Atakondoa ikastetxeko ikasleei zuzenduta.  
12:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda: Drogak dauden mundu batean bizitzen ikasten.**

Hegoak elkartearen jardura.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**OLAZTI Irakurle kluba Dostoyenski idazlearen Memorias del subsuelo liburuari buruz ariko da.**

20:00etan, liburategian.

## LARUNBATA 22

**ARBIZU Udan euskaraz haurrendako aisialdia dinamika bultzatzeko gurasoekin bilera.**

12:00etan, udaletxearen areto nagusian.  
**ALTSASU Nafarroa berriz altxa! 1521-2021 soberania es libertad ekitaldia.**  
12:00etan, Foru plazan.

**ALTSASU Gazte agenda: Ur jolasak.**

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

## LAKUNTZA Afu taldearen

**Larruzalean diskoaren aurkezpen kontzertua.**

19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleen ikasturte amaierako emanaldia.**

19:00etan, lortia zabalgunean (eguraldi txarrarekin igandean).

**IRURTZUN Transitos Amico konpainiaren dantza eta antzerki ikuskizuna.**

6 euro.  
20:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 23

**ARBIZU Leziza bizirik, isurketarik ez! manifestazioa.**

12:30ean, plazatik.

**ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.**

20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 24

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**UHARTE ARAKIL Gurasoentzako tailerrak: Arauak eta limiteak. Gurasotasun positiboa.**

Hizlaria: Leticia Garces padagogoa.  
Izena emateko: [ssbirurtzun@gmail.com](mailto:ssbirurtzun@gmail.com) edo 948 600 694. Gizarte zerbitzuak eta Guraso elkarteak antolatuta.  
17:00etatik 18:30era, udaletxean.

## ASTEARTEA 25

**ALTSASU Familiendako hitzaldia: Nerabezaroan arrisku jokabideen prebentzioa eta ohitura osasungarrien sustatzea.**

Izena ematea: 948

## ZINEMA

## ALTSASU

**IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN**

**Aquellos que desean mi muerte** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 21: 19:00  
Igandea 23: 19:30

**Mía eta Moi** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 27: 19:00


567 662. Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko oinarrizko gizarte mankomunitateak antolatuta.  
17:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 26

**ALTSASU Euskarazko hizketaldi literarioen taldea Amélie Nothomb idazlearen Durduraz eta dardaraz liburuari buruz ariko da.**

18:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 27


**UHARTE ARAKIL Emakumeak elkarrekin dantzan tailerra.**


Irakaslea: Nora Otsoa de Olza Garatea.  
18:00etatik 20:00etara, udaletxearen goiko solairuan.

**LAKUNTZA Bingen Amadozen Matones ¡Para que todos los sepan! liburuaren aurkezpena.**

Izena ematea: Tximonena jatetxean (edukiera bete arte).  
18:00etan, Tximonena jatetxean.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 21




Eguna eguzkitsu esnatuko da, baina arratsaldea aurrera joan ahala, hodeitza geroz eta trinkoagoa izango da gurean eta azken orduan euri pixka bat egin lezake.

## Igandea, 23




Hodeitsu jarraituko du igandeak, nahiz eta prezipitazio aukerak gutxitu, euri txikia egin lezake. Temperaturek gora egingo dute egunak aurrera egin ahala.

## Larunbata, 22



Gutziz lainotuta izango da goizetik, eta zaparrada batzuk bota ditzake han hemenka. Temperaturak nabarmen egingo du behera.

## Astelehena, 24



Haizeak gogorrago joko du astelehenean, temperaturak jaitziaraziz, eta hotz sententzia areagotuz. Haizea gelditzen den momentuan, euria egin dezake.



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
[www.dekovennavarra.com](http://www.dekovennavarra.com)  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



ESKELA



**Jose Barandiaran Albizu**

(Bakaikun hil zen, 2021eko maiatzaren 15ean, 100 urte zituela)

"Nor bait ahazten denean  
hil egiten dela diote, horregatik zu beti  
gurekin egongo zara"

Zure familia

OROIGARRIA

**Iosu Anduaga Goñi**

XI. urteurrena  
(Maiatzaren 20an)

Gu biyotzetan zaude

Zu fameliyek



OROIGARRIA

**Ana Maria Cruz Silva**  
'Ana'  
I. urteurrena

"Haizea bezala  
eskuen artetik  
ihes egin duzu"  
Amatxo polita ez zaitugu ahazten!

Etxekoak



## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## SALGAI

**Arbizun etxe unifamiliarra salgai:** Interesa baduzu deitu 669 585 502.

**Etzarri Aranzen, Enfermogurutze dermioan, 8500m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai:** gutzit hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

## OHARRAK

**Irurtzango igerilekuetako taberna kudeatzeko eskaintza:** Baldintzak kontsultatzeko udalekuan galdetu edo [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) webgunean irakurri. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 28an amaitzen da.

**Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren matriculazio epea:** Datorren ikasturterako izen ematea maiatzaren 17tik 26ra bitartean egin ahal izango da. Online Altsasuko udalaren web-orrian ([www.altsasu.net/eu](http://www.altsasu.net/eu)), presentzialki eskolako idazkari-tzan (Burunda kalea 1, ordutegia astelehenetik ostegunera 15:00-20:00, ostiralean 9:30-13:30). Espezialitateak: 3-6 urte bitartekoentzat musika eta mugimendua, 6 urte-tik gorakoentzat; hizkuntza musikala eta kantua, batera, pianoa, akordeoia, trikitixa, gitara klasikoa, gitara elektriko, biolina, saxofoia, zeharkako txirula, klarinetea, tronboia, bonbardino, trontpetu, tuba, txistu, alboka eta gaita, eta 16 urtetik gorako-

tzat helduentzako hizkuntza musikala eta instrumentua. Informazioa gehiago [musikaeskola@altsasu.net](mailto:musikaeskola@altsasu.net) helbide elektronikoa eta 948 564 581 tfno zbkira deituz jaso dezakezu.

**Komunikazio Udaleku irekiak:** Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak antolatuta eta DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteei zuzendua eta euskaraz. Gazteak modu kritikoa, praktikoa eta dibertigarria komunikazioaren mundura hurbiltzeko helburuarekin antolatuta dituzte. Bi txanda egongo dira, uztailaren 5etik 9ra edo uztailaren 12tik 16ra, 09:00etatik 13:30era, Aretxabaletako MU-ren Komunikazio Campusean. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 18ra arte, prezioa 125 euro. Informazioa gehiago 600 046 689 tfnoan edo komunikazioudalekuak@gmail.com helbidean. Izena emateko [www.goiena.eus/bereziak/](http://www.goiena.eus/bereziak/) udalekuak web orrian.

**Musika tresnak eta osagarriak biltzeko jarduerak solidarioak:** Irakeko Kurdistanera (Domiz eta Duhok errefuxiatu kanpoetara) bidaltzeko "Guda hotsa isiltzeko musika" kanpaina martxan. Instrumentuak zure musika eskolan edo ikastetxean eman ditzakezu maiatzaren 31a baino lehen. "Mugarik gabeko musikariak" eta El Salvador Elkartasuna GKE-en ekimen solidarioa.

**Arbizuko egur loteak 2021:** Egur lotea nahi dituenak izena eman dezake 948 460 017 tfnoan, gaur ostirala azken eguna. 35 euro egur lote bakoitzaren prezioa. Ordainketa Caixako ES64 2100 5169 3222 0002 2902 kontuan egin beharko da derrigorrez.

**Josefina Arregi Klinikatik eskaera:** Eguneko Zentroan orotzipen tailer bat prestatzen ari dira, pertsona orainaldian orientatzeko xedearekin. Tailerra egin ahal izateko klinikak garai bateko objektuak behar dituela jakinarazi du, esaterako: jostailuak, jolasak, landa edo etxeko tresnak, apaingarriak, eta abar. "Etxean horrelako objektuak baduzu, helaraz diezaguzu Altsasuko gure zentrorra". Josefina Arregi Klinikak Lagunen Elkartea.

**Bertso Elkarteak antolatuta Bertso udalekuak:** Aurreko urtekoen aldean, lagun eta egun kopuru gutxiagokoa izango da egonaldi bakoitza. Sopela, Orio, Uitzi eta Amaiur artean 5 eguneko zortzi txanda osatu dira, haur edo gazte bakoitzak bakarra aukeratu ahal izango du. Izen ematea maiatzaren 25etik 31ra izango da. Ekainaren 9an erantzun zale izena eman duten gutzietatik udalekuetan partzeko aukerarik ote duten. Informazioa gehiago 943 694 129 tfnoan (astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara), [aisialdia@bertsozale.eus](mailto:aisialdia@bertsozale.eus) helbide elektronikoa edo [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean.

[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)  
[www.iragarkilaburrak.eus](http://www.iragarkilaburrak.eus)

## JAIOTZAK

- **Neizan Garcia Alamillo**, maiatzaren 14an Altsasun
- **Maia Martinez Cantero**, maiatzaren 16an Altsasun

## EZKONTZAK

- **Berta Lerma Alegret eta Javier Diaz Llamas**, maiatzaren 14an Altsasun


## HERIOTZAK

- **Ricardo Palacios Alonso**, maiatzaren 15ean Lakuntzan
- **Jose Barandiaran Albizu**, maiatzaren 15ean Bakaikun
- **Isabel Azkona Perez de Narvajás**, maiatzaren 18an Hiriberri Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**Hemen eta online**

iragarki laburrak .eus


ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75  
edo [eskak@guaxe.eus](mailto:eskak@guaxe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Ezkurdia eta Altuna, Lau eta Erdiko Txapelketako partida batean, ahalegin betean. JESUS GARZARON

# Arantza ateratzera eta ezustekoa ematera

**PILOTA** Joseba Ezkurdiak orain arte Buruz Burukoan bere borroa izan den Altuna gainditu nahi du final kutsua duen final laurdenean, eta Zabaletak Dario ezustean harrapatu nahi du, finalerdietara sailkatzeko. Tentsio handiko lehiak espero dira

Buruz Buruko Pilota Txapelketan final laurdenak daude jokoan. Ostiralean, Idiazabalen, Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak jokatu dute, eta larunbatean jardunaldi bikoitza hartuko du, aspaldiko partez, Donostiako Atano III.ak; lehenik eta behin Jose Javier Zabaletak Dario Gomez izango du aurkari, eta, bigarrenik, Joseba Ezkurdiak Jokin Altunari egingo dio aurre. Bukatzeko, igandean Artolak Urrutikoetxearen kontra jokatu du Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

## Zabaletak gehiago nahi du

Zabaletak eta Dariok zabalduko dute larunbateko Donostiako

Atano III.eko jaialdia. Dariok joan den urteko Buruz Burukoan egindako lan onaren bidetik jarraitu nahi du, baina aurrean edozein gauza egiteko gai den Zabaleta du. Etxarrego atzalaria ikusgarri dabil; horren isla, larunbatean 2 tantotan utzi zuen Arteaga. Dariok material aukeraketan irribarrez adierazi zenez, "Zabaleta horrela jotzen hasten bada, agian eskailera bat jarri beharko nuke zarpian, tximeleta sare batekin erantzuteko". Txantxak alde batera utzita, Dario da faboritua, baina Zabaletak sorpresa eman nahi du, finalerdietarako txartela nahi duelako. "Ea partida ona egin, Dario ezustean harrapatu eta ea

irabazten dudana. Hura da faboritua, iaz erakutsi zuen zertarako gai den" nabarmendu zuen arakildarrak. Partida borrokatua espero da.

## Ezkurdia eta Altuna, aspaldiko arerioak

Ezkurdia eta Altunak joan den urtean ere Buruz Buruko final laurdena jokatu zuten, eta partida oso estuan, 22 eta 18 gailendu zen amezketarra. 2018 urteko Buruz Burukoan elkarren kontra finalerdietan aritu ziren, eta kasu horretan ere gipuzkoarrak egin zuen aurrera, 22 eta 17 irabazita. Altunak bide horretatik jarraitu nahi du; ez, ordea, Joseba Ezkurdiak. Altunaren kontra buruz

buruz buru izanaren arantza atera nahi du, baina badaki arierio zaila duela. "Buruz buru aritzeko dohain asko ditu Jokinek. Erraz egiten ditu tantoak, eta ia ez du hutsik egiten, partidara heltzen da eta oso zaila da bera gainditzea" azaldu zuen arbizuarrak material aukeraketan. Amezketarra ez da arbizuarrak fio. "Ezkurdiak bolea batekin tantoa aldatzen du. Arriskutsua da. Fisikoki, zezen bat da Joseba, eta edozein tokitatik ematen dio abiadura pilotari. Nik eraman beharko dut ekimena; bestela, dantzan ibiliko nau" nabarmendu zuen Altunak.

Bi aurrelarien lehia estua espero da Atano III.lean, final kutsua duen final laurdena, eta biek adierazi bezala, agintea nork hartu, horrek erabaki dezake partida. Jakina, sake zitalak ere erabakigarriak izanen dira. Ezkurdiak Buruz Burukoan behingoz Altuna gainditu eta aurrera egin nahi du, baina gipuzkoarrak frontoi osoko txapelketan bere nagusitasunari eutsi nahi dio. Zalantzarik gabe, tentsio handiko final laurdena izanen da, pilota zaleak gozoz espero dutena.

## Irurtzun Txapelketa

39. Irurtzongo Pilota Txapelketa azken txanpan dago. Egunotan senior mailako finalerdiak daude jokoan. Lasok eta Minak Elizalde eta Bergera izanen dituzte aurkari, eta Retegi Bik eta Lazkozek Antso eta Gil. Finalak maiatzaren 29an jokatu dira.



Roberto Martil kantxara itzuli zen. XOTA

## Osasuna Magna Xota ur nahasietan sartu da

**ARETO FUTBOLA** Imanolek aitortu du 'kezkatuta' dagoela eta taldeak 'bizitza' duela jokoan

1. mailari eusteko borrokan murgilduta dago Osasuna Magna eta asteartean 3 puntu oso garrantzitsu ihes egiten utzi zituen, Zaragozaren kontra 3 eta 6 galdu eta gero. Imanol Arregi oso haserre dago. "Oso amorratuta nago,

jokoan dugun guztiarekin akats barkaezinak egin genituelako. 1. mailan, hiru jokalaririk atezainaren kontra daudela ezin daiteke huts egin. Akats baldarreen berdindu digute, 2 eta 3a beste akats batengatik egin digute eta

2 eta 4ko akatsa kalifika ezina da" nabarmendu zuen. Jokoan asko dutela nabarmendu du. "Bizitza dugu jokoan, eta akats horiekin ezinezkoa da irabaztea. Jaiki, eta geratzen zaizkigun hiru partidak borrokatu behar ditugu, nola edo ahala hau salbatu ahal izateko, 1. mailari eusteko eta, ondoren, hartu beharreko erabakiak hartzeko" adierazi zuen.

Talde berdeak asteartean Ribera de Navarra hartuko du Anaitasunan, 20:00etan.

## 1. MAILA AUTONOMIKOA

**15. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Lagun Artea - Infanzones **2-1**

### SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA  
**1** Avance Ezkabarte **38**  
**8** Lagun Artea **13**

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

**17:00** Lagun Artea - Zirauki (*Zelai Berri*)

### Lagun Artea, gogotsuago

Lakuntzako itxiera perimetrala zela eta bi jardunaldi jokatu gabe egon ondoren, zelaira gogotsuago itzuli dira jokalaririk txuriak. Infanzonesen kontra garaipen ederra lortu zuten, Unai Bakaikoak eta Unai Zubiriak sartutako golei esker, eta igandean atzera ere Zelai Berrin jokatu dute, sailkapenean 5. postuan dagoen Zirauki taldearen kontra. Lakuntzarrek bi partida gutxiago dituzte, eta atzeratutako partidei egutegian tokia egiteko nahikoa lan izango du klubak.

## ERREGIONALA GIZONAK

**15. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasu - Arrotxapea **0-1**

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA  
**1** Gazte Berriak **33**  
**5** Altsasu **16**

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

**17:00** Altsasu - Doneztebe (*Dantzaleku*)

### Altsasu, Doneztebe arerio zuzenarekin

Presarekin ibiltzea ez dela ona jabetu zen Altsasu larunbatean Arrotxapearen kontra etxean jokatu dute partidaren. Ongi hasi ziren gorritxoak, baina Arrotxapea aurreratu zen, eta partidari buelta emateko presak ez zion ezer ona ekarri Altsasuri eta ez zuen helburua lortu. Igandean sailkapenean 4. den eta arerio zuzena den Doneztebe taldea hartuko du Altsasuk Dantzalekuan.

## LASTERKETAK Triku Trailean izena ematea astelehenean zabalik

Ekainaren 27an abiatuko da, goizeko 9:30ean, Etxarri Aranzako kanpina irteera eta helmuga dituen Triku Trail mendiko lasterketa (21 km, 1.400 m desnibel positiboa). Astelehenean, maiatzak 24, zabalduko dute izena ematea, 18 urtetik gorakoendako, 20:00etatik aurrera ([www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com)). Gehienezko kopurua 250ekoa izanen da.



## Itxasperrik hartuko du bizikleta ibilaldi berezia

**KIROLDEGIA** Mank-ek antolatu du maiatzaren 30erako, baina aurretik eman behar da izena

Aurreko urtean pandemia zela eta bertan behera geratu zen ekimenetako bat berreskuratu du Sakanako Mankomunitateak: bizikleta aitzakia hartuta, goiz pasa ederra egiteko aukera. Aurtentzen Arakilek hartuko du ekimena, Itxasperri baselizaren aurreko zelaiak, hain zuzen ere, eta ekitaldiz betetako goiza iragarri dute maiatzaren 30erako. Guztia prestatzeko, Mankomunitateak ondokoen laguntza izan du: Arakilgo Udala, Barranka Txirringularitza Taldea, Berri Bikes eta Muruzabal bizikleta dendak eta Sakanako ikastetxeak, kasu honetan Atakondoa, San Migel eta Andra Mari ikastola.

Hitzordua maiatzaren 30eko goizeko 10:00etan jarri dute, Itxasperri. Ordu eta erdiko paseo ederra egingo dute bizikletan, etxeko txikienekin egiteko ibilbide erraza. Ondoren, goizeko 11:30ean Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioa hasiko da, eta eguerdian munduko jolas herrikoiak eta bizikleta konponetzeko tailerra, Berri Bikes eta Muruzabal bizikleta denden eskutik.

Bitartean, 2. eskuko kirol materialaren bilketa eginen da. Patinak, erraketak, bizikletak, patineteak, palak, baloiak, esku pilotak, eskiak... denetarik jasoko da, eta bildutako materiala Apoyo Mutuo-Elkarri Laguntza elkartearendako izanen da.

### Izena ematea, dohainik

Maiatzaren 30ean Itxasperri antolatutako ekitaldiak dohainik dira, baina antolakuntzarako eta guztia behar bezala prestatzeko aurretik eman behar da izena, maiatzaren 26rako hain zuzen ere, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)) edo Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuan (648 070 710, [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus)).



CBASK-Jatormanek azken finaleko final erdietara sailkatzeko itxaropena du. CBASK

# CBASK-Jatorman, azken txanparako prest

**SASKIBALOAIA** Talde altsasuarrak 6. postuan despeditu du 1. fasea eta liga erabakitzen den 2. faseari ekingo dio. Sailkapen gurutzaketan Avia Zizur izango du arerio eta bere kontrako bi partidatan final erdietara nor pasako den erabakiko da

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Autonomia Arteko 2. Mailako 1. fasea bukatu da. 26 jardunaldi jokatu, San Cernin taldea izan da lehena (38 puntu) eta Altsasuko CBASK-Jatorman taldea 6. postuan sailkatu da (28 puntu). Orain 2. fasea jarriko da martxan, aurtengo denboraldiko ligako postuak behin betiko zehaztuko diren fasea.

"Gurea ez da futbol liga bat bezalakoa. Saskibaloian, lehenengo fasean, postu batzuk erabakitzen dira. Baina gero bukaerako fasea edo 2. fasea jokatzeko da, eta hau da benetan balio duena; hau da, fase honetan zehazten dira ligako behin betiko postuak" azaldu digu CBASK-Jatorman taldeko entrenatzaile Iosu Mendiola.

CBASK-Jatorman bukaerako faseko sailkapen gurutzaketan Avia Ardoirekin jokatzeko egokitu zaio. "1. fasean Ardoi hirugarrena izan zenez eta gu seigarrenak, 2. fase honetan elkarren kontra jokatu dugu, bi partidutara. Lehenengo partida gure etxean jokatu dugu, larunbatean, 18:00etan, Zelandin, eta bigarren partida hoberena sail-

katutakoaren etxean. Bi partida horiek kontuan hartuta puntu gehien lortu dituen taldeak egingo du aurrera. Hau da, partida bat irabazi dezakezu eta bestea galdu, baina irabazten duzuna abantaila gehiagotatik irabazi baduzu galdu duzuna baino, hurrengo fasera pasatzea lortuko zenuke" aipatu du entrenatzaileak. Hurrengo fase hori azken fasea da, finalerdien eta finalaren fasea. "Nolabait esanda, orain Avia Ardoiren kontra jokatu duguna final laurdena litzateke, eta hurrengo fasera sailkatzea lortuko bagenu finalerdiak eta finala erabakiko lirateke bertan" gaineratu du Iosu Mendiola.

Finalerdiak eta finala partida batera jokatzeko dira. "Asteburu batean jokatzeko dira, kiroldegi berean. Larunbatean bi finalerdiak jokatzeko dira eta igandean finala eta 3. eta 4. postua" zehaztu du Mendiola.

### CBASK-Jatorman, animoso

CBASK-Jatorman taldea azken faseari ekiteko gogotsu dago, eta itxaropena badu. "Printzipioz faboritoak beraiek direla suposatzen da, denboraldian zehar Ardoikoek guk baino partida gehiago irabazi dituztelako. Baina oso momentu onean gaude; lesionatua geneukan jokalariren bat errekerperatu dugu eta nik uste aukera handiak ditugula 2. fase honetan Ardoi irabazteko eta finalerdietara pasatzeko" nabarmendu du Iosu Mendiola entrenatzaileak.

**"OSO MOMENTU ONEAN GAUDE; USTE DUT AUKERA HANDIAK DITUGULA" IOSU MENDIOLA**

## 46 palista Ziordian

### PALETA GOMA

Igandean Nafarroako Emakumezkoen Master Cup Foru Komunitateko Paleta Goma Txapelketa hasi zen, Ziordian. 46 palista aritu ziren, tartean sakandar ugari, sistema berritzailean lehiatuz, hau da, triangeluarrak eta lauangeluarrak jokatu. Bertan erabaki ziren ekainean Etxarri Aranatzeko jokatu diren finalerdiak.



**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Igor Arrieta Lizarragak (Lizarte) irabazi zuen igandean jokatutako Iturmendiko Trofeoa (3:16:57), etapa ikusgarria burutu eta gero. Uhartearrendako afizionatuen mailako bere lehendabiziko garaipena izan zen, non eta Sakanan.

**Aurten hasi zara afizionatuen mailan eta dagoeneko zure lehen garaipena lortu duzu. Eta ez hori bakarrik, Nafarroako txapelduna zaitugu. A ze nolako debuta. Zorionak!**

Eskerrrik asko! Egia esan, denboraldi hasiera oso ona izan da. Garaipena lortuta, oso pozik nago. Lizarte taldea aukeratu zenuen afizionatuen mailara igotzeko. Jubenilen mailatik afizionatuetara dagoen saltoa oso handia omen da.

Bai, aldaketa handia da, bai entrenamenduen aldetik, lasterketa erritmoa... Ez da erraza, baina nahiko ongi egokitu naiz kategoría berrira. **Sakana Group-Aralarren trebatetik iritsi zinen Lizartera. Taldekide berriak, entrenatzaile berriak... Nolako giroa duzue Lizarten?**

Giroa oso ona da. Bazegoen jubenetako lasterketatik aurretik ezagutzen nuen jendea, eta orain taldekide ditut. Gustura. **Otsailean hasi ziren lasterketak, eta talde eta mendi garaipenak kontuan hartu gabe lau podium lortu dituzue. Lizarrako Cirilo Zunzarren Memorialeko hirugarren izan zinen, Balentziaga Memorialeko bigarrena, Santikutz Klasikoan hirugarren eta igandeko Iturmendiko Trofeoan txapelduna. Iturmendiko lasterketa mugitua izan zen, ezta?**

Bai, baita eguraldiagatik ere, izan ere euria ari zuen, eta hotza. Gure asmoa zen azkeneko zatian lasterketa mugitzea, eta gure txirrindulariak aurreratzea; horretan saiatu ginen, eta azkenean Bakaiku baino lehenago, azken aldatuon, metro batzuk hartzea lortu nuen eta Iturmendira aurretik heltzea. **Antolakuntzak zirkuitu bat prestatu zuen Iturmendi, Olazti eta Bakaiku artean eta zirkuituari 6 itzuli egin zenizkioten. Tartean Altamira sei alditan igo zenuten, Altsasutik. Halako zirkuitu laburrak sarritan, hala ibilbide luzeagoak nahiago?**

Agian nahiago dut ibilbideak luzeagoak izatea, baina denetara moldatu behar da eta ez dut arazorik. Egoera honetan lasterketak egin ahal izatea, hori bakarrik, ongi dago. Ibilbide luzeago batean portu gogor bat sartu edo Altamira seitan igo, bi lasterketak

# "Lana ahalik eta hobekien egiten eta ikasten saiatzen naiz beti"

**IGOR ARRIETA LIZARRAGA** TXIRRINDULARIA

**TXIRRINDULARITZA** UharTE arakildarrak afizionatuen mailako lehendabiziko garaipena lortu zuen igandean Iturmendin eta Nafarroako 23 urtez azpiko txapelduna da



Igor Arrietak uste du Sakanako txirrindulariek maila oso ona dutela. LIZARTE

dira gogorrak. Igandean, Altamira igotzean erritmoa oso altua zen, baina 5 minutuko kontua zen, gainontzeko 30 minutuetan ez baitzen erritmo berdina. Ibilbide gorabeheratsu horietan erritmoari egokitzea da gakoa. **Iturmendin talde bat kokatu zen aurretik. Zuk atzetik salto egin eta aurrekoekin batzea lortu zenuen. Altamirako azken igoeran eraso jo zenuen, baina harrapatu zintuzten, eta azkenean Bakaiku alde atera eta bakarrik sartu zinen helmugara, taldeari 3 segundo aterata. Lizarte taldearen beste erakustaldi bat izan zen, azkenaldiko lasterketa ia guztiak goitik behera kontrolatzen ari zaretelako.**

Bai. Nik Altamiran kolpea jo nuenean lau taldekide nituen ondoan, Lizarteko 5 txirrindulari ginen. Erasora atera nintzen, etapa borrokatzeko eta irabazteko aukera gehiago izateko. Afizionatuen lehen urtekoa izanik, taldekideei laguntza gehiago ematea tokatzen zait, baina Iturmendin niretako lan egitea erabaki zen eta ongi atera zen. Afizionatuen lehen lasterketa irabaztea, eta Iturmendin, etxetik gertu, oso berezia izan zen.

**"DENBORALDIA LUZEA DA NOLA JARRAITUKO DUEN IKUSTEKO, BAINA ORAIN ARTE GUSTURA NABIL"**

Lizartek bere webgunean ondoko titularrak jarri zuen Iturmendikoaz: **"Arrieta quiere un imperio". Lan handia jarri dizute, afizionatuen lehen urtetik inperioa eraikitzen hastea.**

Bai (kar, kar...). Halakoei ez diet buelta gehiegirik ematen. Orain arte bezala jarraitu beharra dut, nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen eta ikasten. Halako titularrek ez naute estutzen. **Kadeteetan eta juniorretan maila bikaina ematetik iritsi zara afizionatuetara. Kontuan hartu behar da ere, txirrindularitzarako gaitasun handiak dituzula eta Movistar Team taldeko Jose Luis Arrieta zuzendariaren semea zarela. Zutaz asko espero da. Presio hori ez al da gehiegizkoa?**

Esan dudana bezala, nik ez diot honi guztiari buelta asko ematen. Lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz beti; batzuetan ateratzen da eta besteetan ez, baina horrela jarraitzea dut buruan.

**Nolako egutegia duzu? Ba al duzu begiz jota duzun probaren bat, bertan aritzeko irrikan zaudena?**

Aurtengoa ere urte arraroa da; bakoitzak zein probatan parte hartuko dugun ez dakigu zehazki, baina hemendik hilabete pare batera Espainiako Txapelketak jokatuko dira eta niretako bereziak dira. Oraingoz hori da helburu nagusia. Nafarroako selekzioarekin arituko nintzateke, eta ea zer moduz ateratzen diren.

**Junior mailan Espainiako txapeldunordea izan zinen errepidean eta erlojupekoan eta Espainiako zirkuloko txapelduna. Bide horretatik jarraitu nahiko zenuke, baina afizionatuetan zailagoa izango da, ez? Kategoriaz igotzen zarenean beti maila altuagoa izaten da, zailagoa. Beraz, Espainiako Txapelketarako maila onean egoten saiatuko gara.**

**Junior mailan Espainiako selekzioak deituta zenbait txapelketatan aritu zinen, Mundialekoan eta Europako Txapelketetan tartean. Afizionatua zarenetik selekzioetik zurekin harremanetan jarri al dira?**

Harremanetan egon gara, baina ikasketak eta beste direla, aurtengo denboraldi hasieran eurenkin aritzea ez da posible izan. Ikusiko dugu zer datorren.

**Txirrindulari nahiko osoa zara; alor guztietan ibiltzen zara ongi baina mendia duzu gustuko. Eskalatazile petoa zara.**

Bai, momentuz mendiko lasterketak gustukoagoak ditut esprintekoak baino.



Uhartearrak berari buruzko titularrei ez omen die buelta gehiegirik ematen. LIZARTE

### Afizionatuetan jokatutako lasterketatik orain arte zein gustatu izan zaizu gehien?

Balentiaga Memoriala edo Santikutz, gogorak izan zirelako eta portuluzeak zituztelako. Agian horregatik izan dira politenak. **Baina Iturmendiko garaipenak zapo berezia izango zuen, ez?** Bai, jakina. Afizionatuen lehen urtean lehen lasterketa irabaztea eta etxetik gertu, oso polita izan zen. Garaipena ospatzeko lagunekin afaldu nuen.

### Senitartekoen, herritarren eta lagunaren artean sekulako fan kluba duzu.

Bai (kar, kar...). Orain arte mugak itxita egon direnez, ezin izan dute hemendik kanpoko lasterketara joan; bestela, etxekoak beti joaten dira. Iturmendin ere egon ziren.

### Zenbat entrenatzen duzu?

Ikasketak direla eta, astean zehar ez dut entrenamendu luzeak egiteko denbora soberan, baina hiru ordu inguru egiten ditut, batzutan bi ordukoak eta asteburutan lau ordukoak. Astearen arabera izaten da, azterketak ditudan edo ez kontuan hartuta... egunero ez dut berdin entrenatzen.

### Zer moduz ikusten dituzu afizionatuetan dauden gainontzeko sakan-darrak?

Ongi. Agian egia da ni azkarrago moldatu naizela kategoria berrira eta beraiek oraindik egokitzen ari direla, baina orokorrean hemen, Sakanan, oso maila ona dugula uste dut.

### Ematen du afizionatuen kategoriak sorpresa gehiegi ez dizula ekarri.

## "AFIZIONATUEN LEHEN LASTERKETA IRABAZTEA, ETA ETXETIK GERTU, OSO BEREZIA IZAN ZEN"

Lasai nago, nahiko ondo moldatu naiz. Oraindik denboraldia luzea da nola jarraituko duen ikusteko, baina orain arte gustura nabil.

### Europako beste herrialdeetan txirindulariak azkarrago igotzen dira profesional mailara. Hango lasterketak erritmo askoz ere altuagoan jokatzen dira, eta txirindularitza beste modu batean ulertzen dute.

Hemen agian lehiatzeko modua bestelakoa da, lasaiagoa. Kanpora ateratzen zarenean ikusten duzu, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, zein den zure benetako maila. Dena den, ni lasai nago, afizionatuen mailara egokitzen. Gero ikusiko da zer gertatzen den edo nola. Lizartek Frantziako eta Italiako zenbait lasterketan parte hartuko du, eta saiatuko naiz bide honetatik jarraitzen, kanpora atera eta lasterketa horietara joan ahal izateko.

### Zein da gustukoaren duzun txirindularia?

Espainiatik Alejandro Valverde. Sekulako sasoi du. Eta, bestalde, Mathieu van der Poel.

### Nork irabaziko du Giroa?

Agian Egan Bernalek –elkarrizketa astelehenean egin zen–, baina faborito guztiak minutu bateko aldearekin daude, eta ihesaldi batean edo egun txar batean guztia alda daiteke.

### Sare sozialetan nahiko aktiboa zara.

Beno... (kar, kar) Instagrama eta halakoak ia egunero begiratzen ditut, batak eta besteak zer igo duten ikusteko, eta ni ere bertan ibiltzen naiz. Aritunaizen probak, entrenamenduak eta halakoak igotzen ditut.

### Laburbilduz, ze espero duzu urte honetaz?

Hasi den bezala bukatzea, hau da, maila onean egotea. Eta, jakina, kategoriari tamaina hartzea eta ikastea.

# Half Iruñean, Astiz onenen pare eta Garcia ongi

**TRIATLOIA** Alkoz eta Iruñea batu zituen proba gogorrean klasifikatu ziren 464 triatletetan artean Mikel Astiz 14. postuan sailkatu zen eta Sergio Garcia de Eulate 63. postuan. Larunbateko Aritzalekuko Triatloia da bien hurrengo helburua

### Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Larunbatean Half Triatlon Iruñea Erronka jokatu zen. Estatuko triatleta onenek hartu zuten parte, eta 464k lortu zuten proba despeditzea. Alkozko urtegian 1.900 metroko igerialdia egin eta gero, bizikleta hartu eta triatleten urtegitik Iruñera bitarteko 77 kilometroak osatu behar izan zituzten, bukaeran Iruñeko herri guneko kaleetan 17 kilometroko oinezko lasterketa egiteko. Proba gogorra izan zen, ikuskizun hutsa, paraje eta toki oso desberdinetan garatu baitzen.

Gustavo Rodriguezek (Tri-Penta Terras de Lugo) jantzi zuen txapela Antoniuttiko helmugan (3:27:23). Iruñean lortutako bere laugarren txapela izan zen. Minutu pasa atera zion Eneko Llanosi (3:28:34). Emakumezkoetan, Espainiako egungo txapelduna den eta Saltoki taldeko kide den Laura Gomez kataluniarra izan zen txapeldun handia (4:00:57), Aida Valiñoren (Tri-Penta Lugo) aurretik.

Mikel Astiz Erro (Donibane Onhaus) half ikusgarria egin zuen eta sailkapen orokorrean 14. izan zen (3:50:59), onenen pare, eta Sergio Garcia de Eulate Maiak (Sakana Triatloi Taldea) merituzko lana egin zuen, 63. postuan iritsi baitzen. (4:06:52). Juan Ignacio Iturrioz (Sakana Triatloi Taldea) 180. sailkatu zen (4:24:36) eta Jose Ignacio Miqueo (Hiruki Triatlon) 194. (4:26:35).

### Mikel Astiz, guztiz motibatuta

Mikel Astiz "oso pozik" dago egindako lanarekin. "Banekien ongi egingo nuela eta fisikoki ongi nengoela; halako triatloi luze batean nire burua hor aurrean ikusteak asko motibatu ninduen. Nahiz eta asko hobetu, igeriketa nire alorrik okerrera da, eta lehendabiziko postuetan zeudenekin alderatuta nire denbora kaxkarra dela esan beharra dago, baina joan-



Mikel Astizek lasterketa guztian sentsazio oso onak izan zituela aipatu du. UTZITAKOA

## LARUNBATEAN ARITZALEKUKO TRIATLOIAN ARIKO DIRA ASTIZ ETA GARCIA DE EULATE

go naiz hobetzen" aipatu du Ihabarko triatletak. Proba guztian ongi sentitu zela gaineratu du. "Nire sentsazioak oso onak izan ziren, bai proba hasieran eta baita bukaeran ere. Egia esan, bizikletako eta korrikako tartea motz egin zitzaizkidan; hain ongi sentitu nintzen... Proba pixka bat luzeagoa balitz, niretzat hobe" nabarmendu zuen.

Makina bat erronka ditu Astizek, lehena larunbat honetan bertan, Aritzalekuko Triatloia jokatuko baita, sprint eta distantzia olinpikoan. "Sprint distantzia motz geratzen zait, niretzako ez da egokia. Beraz, distantzia olinpikoa eginen dut: 1.500 m igeri, 45 km bizikletan eta 10 km korrika. Proba Nafarroako Distantzia Olinpikoko Txapelketa denez, ea zer moduz aritzen naizen" adierazi du. Ekainaren 19an Half Logroño Txapelketan parte har-

tuko du, eta ongi ibiltzea espero du. Uztailean Sprint Distantziako Nafarroako Txapelketa jokatuko du Tuteran.

### Sergio Garcia, konforme

Sergio Garcia de Eulatek adierazi duenez, Alkoz Urtegitiko igeriketa sektorean "oso ongi" aritu zen, baina uretatik aterata, ez zen espero bezala aritu. "Lasterketetan esfortzua neurtzen dugu, eta Peñiscolan, esaterako, zenbaki hobeak egin nituen. Baina egun guztiak ez dira berdinak eta beti ez zara berdin ibiltzen. Half Iruñean erritmoa hartu nuen, baina baxuagoa. Hala ere, egindakoarekin konforme nago" azaldu du triatleta altsasuarrak, Mikel Astiz "ikusgarri" aritu zela gaineratuz.

Larunbatean ere Aritzalekuko Triatloian arituko da, baina Sprint distantzian, Sakana Triatloi taldeko Javier Borregarekin eta Xabi Borregarekin batera. Juan Luis Maiza taldekidea distantzia olinpikoan ariko da. "Mikel Astizek Logroñoeko Halfa egingo du, baina nik ez. Uztailean Andorrako Halfa egingo dut eta aurretik trailen bat, ikusiko dugu" aipatu du.

# Motorren orroak martxan

**AUTOMOBILISMOA** Kontrabandisten Rallysprintean Eneriz Besga eta Javi Goikoetxea bere kategorian onenak izan ziren. Larunbatean Izpegiko Igoerak Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa abiatuko da eta gure pilotuak autoei azken ukituak ematen dabilta

**Maider Betelu Ganboa** OLAZTI

Nafarroako Rally Txapelketa martxan dago, larunbatean Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa abiatuko du Baztango Izpegiko igoerak, larunbatean ere Nafarroako Autokros Txapelketako lehen proba hartuko du Nafarroako Zirkuituak eta uztailearen 12an Nafarroako Lur Gaineko Rally Txapelketa mustuko du Murchanteko Lur Gaineko Rallyak. Automobilismoa 2021 denboraldirako prest dago eta pilotuak euren makinak eta autoak fintzen buru belarri dabilta.

Sakana Motorsport eskuderiako Eneriz Besga pilotuak Javi Goikoetxea kopilotuaren laguntza izan zuen maiatzaren 8an Nafarroako Rally Txapelketa mustu zuen III. Kontrabandisten Rallysprintean, Urdaxen. Hasiera batean soilik pilotu nafarrek har zezaketen parte, muga perimetralarengatik, baina azkenean Nafarroatik kanpo etorritako zenbait taldek aritzea izan zuten. Partaideek antolakuntzak prestatutako ibilbidea hirutan egin behar zuten, eta Marcos Diego eta Juan Luis Garcia izan ziren azkarrenak bere Porsche 911 997 GT3 autoarekin (33:05). Besga eta Goikoetxea olaztiarrek lan ona egin zuten Citroën Saxoarekin. Saillkapen absolutuan 5. sailkatu ziren (36:47), eta euren mailan, 2. kategorian, lehenak izan ziren.

## Nafarroako Rally Txapelketan hasiera ona

"Ongi ibili ginen, gustura. Azkenean mangan edo tartean atzeko suspentsio bat hautsi zitzaigun, baina unean ez ginen ezta konturatu ere egin. Uste dut ez zigula gehiegi eragin. Pentsa, gure denbora onena azkeneko tartean



Goikoetxea, ezkerrean, eta Besga, eskuinean, Kontrabandisten Rallysprintean. UTZITAKO

egin genuen (kar, kar...). Beraz, oso ongi. Rallya bukatuta, auto azpiak begiratu nituenean konturatu nintzen suspentsioa hautsi zela" azaldu du Eneriz Besga pilotuak. Javi Goikoetxea kopilotuarekin gustura ibiltzen da. "Jabi sekulako kopilotua da. Berarekin beti ondo. Ez ditu bere kopilotu dohainak galtzen, inondik inora" gaineratu du Besgak.

Kontrabandisten igoeran Iñigo Galarza kopilotu iturmendiarrak Arakil Motorsporteko Andoni Berastegi pilotuarekin aritu zen

(Renault Clio Sport). "Berastegik familia omen du Sakanan, eta Iñigo Galarza iturmendiarrak da. Gure kategorian lehiatu ziren, baina lehendabiziko pasadan matxura izan zuten eta rallya utzi behar izan zuten" aipatu du Besgak.

Nafarroako Rally Txapelketa osoa egin ahal izatea nahiko luke Eneriz Besgak, baina ezin du ziurtatu. "Guztia ongi badao, nahiko nuke. Baina zaila da esatea. Gurea kirol garestia da, hasieratik dakigu hori, eta matxu-

ra larriren bat izango bagenu agian guztia hankaz gora jarriko litzaiguke. Horregatik ezin dut esan Nafarroako Txapelketa osorik egingo dugula. Ahal dezakeguna egingo dugu eta ahal dugun lasterketetan ariko gara" nabarmendu du Besgak. Joan zen urteko babesleen laguntza du, eta besteren bat gehitu da ere, pilotuen arropak, gurpilak eta materiala saltzen duen babeslea. "Materialean beherapen txiki bat egin digu eta zerbait bada" dio pilotu olaztiarrek.

2020an antolatu ziren lau lasterketatik hirutan euren kategorian, 2. kategorian, irabazi zuten eta bestean bigarren izan ziren, eta Besga eta Goikoetxeak 2. kategorian Nafarroako Rally Txapelketa irabazi zuten. "Aurten ikusiko dugu. Nahiko genuke" berretsi du Besgak. Javi Goikoetxea bere kopilotua izango da, kopilotu olaztiarrek ahal duen guztietan. "Fiterokoan ezingo du, eta beste kopiloturen bat eramango dut, baina berak ahal duen guztietan nirekin egotea nahiko nuke" dio. Denboraldiari itxura ona ematen dio. "Gutxienez egutegian lasterketak daude; denak aurrera ateratzen badira, polita izango da. Iaz soilik lau egin ahal izan genituen, hortaz... atera kontuak. Iragarrita daudenak ateratzen badira, ia normaltasunez ariko ginateteke" dio.

## Larunbatean, Izpegiko Igoera

Larunbatean Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa abiatuko da, Erratzun, Izpegiko Igoerarekin. Bertan ariko da Eneriz Besga. "Matxuratutako suspentsioa Asturiasen dago, konpontzen, baina larunbaterako lagun batek bere kotxeko suspentsioa utzi dit. Muntatu berri dut eta azken ukituak emango dizkiot autoari, puntuan jartzeko. Hemen beti zerbait dago egiteko" dio, irribarrez. Izpegin arituko den beste pilotu bat Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 Turbo) olaztiarra izango da, automobilismora bere itzulera izango denean. "Ibanek Izpegin autoa probatu nahi du, gero Cantabrian Javi Goikoetxea kopilotuarekin "Solo Renault Turbo" izeneko lasterketan parte hartu ahal izateko. Proba horretan soilik R-5ak eta R-11k hartzen dute parte, eta hor dabil Iban, bajaran orduak sartzen, R-5a behar bezala doitzeko" kontatu digu Enerizek.



Urbasako Igoera. ARTXIBOA

## Urbasako Igoerarekin zer?

Sakana Motorsportek antolatu izan du Urbasako Igoera azken urteetan, baita Olaztiko Rallysprinta, baina proba hauek aurten antolatu ahal izango diren zalantza dago oraindik.

Eneriz Besgak azaldu duenez, denboraldiko lehen probak nola doazen ikusi nahi dute, Urbasako Igoera antolatzea posible izango duten erabakitzeke. "Nahiko genuke, baina pandemia dela eta indarrean dauden neurriengatik zalantza ditugu. Egun, asistentzia guztiak itxita egon behar du, burbuilan, eta mekanikari kopurua mugatua da. Urbasako Igoeran asistentzia gunea errepidean bertan dago, publikoa sartzen den tokian. Beraz, ez da erraza. Ea denboraldia nola hasten den, eta ikusiko dugu".

## Irurtzun-Arakil gabe

Arakil Motorsport taldeak uztailearen 3an antolatzekeoa zuen Irurtzun-Arakil Rallysprinta bertan behera utzeko erabakia hartu du aste honetan.

**"POLITA LITZATEKE IRAGARRITAKO LASTERKETAK AURRERA ATERATZEA" ENERIZ BESGA**

**Eneida C. M. eta Erkuden R. B.** LAKUNTZA Ozenki irakurri behar da Bingen Amadozen liburua izenburua: *Hiltzaileak*, («denek jakin dezaten!»). 1936ko kolpearen ondoren bere familiaren istoriatik abiatu da errepresioa eta sarraskia pairatu zutenen ahotsen bidez isildutako istorioa azaleratzeko. Hiltzaileen profila aurkezten du ere, eta ulergaitza dena azaltzen saiatzen da. Posible bada.

### Zerk eraman zaitu istorioa hau kontatzera?

Betidanik bizi izan dut giro hori; betidanik jakin nuen zer gertatu zen gure familian. Ez nintzen joan behar inora nire etxetik abiatuta baneukalako nahikoa kontatzeko. Etxe guztietan ez zen kontatu, etxe askotan isiltasuna izan zen, baina ez zen nire familiaren kasua. Bai amaren etxean bai aitaren etxean betidanik entzun nuen zer gertatu zen garai hartan. Larriak eta latzak pasatu zituzten. Hildakoak izan ziren ere: nire aitona eta nire osaba hil zituzten. Erail zuten osabaren izena jaso nuen, eta behartuago bezala sentitu nintzen haren oroimena zaintzera eta zabaltzera. Gainera, urteak joan eta urteak etorri memoriaren mundu horretan mugitu naiz eta jende asko ezagutu dut. Antzekoak pasatutakoak. Hortik ere hainbat testigantza jaso ditut. Horien bidez beste batzuegana iritsi nintzen, eta, azkenean, ikusi nuen hau kontatzea behar zela jende askok oso gutxi zekiela honi buruz, edo oso gutxi. Beldurrarengatik isiltasun handia egon zelako. Hau dena kontatzeko zegoela sentitu nuen, jakin zezaten zer izan zen hura. Ikaragarria izan zen, eta horregatik azpigitu hori. Hori da liburua helburua.

### Beste ikuspuntua falta da?

Oso zaila da ulertzeko batzuk besteekin ziotena. Gogorra eta ulertezina da. Inork ez du ulertzen nola gauetik goizera zure auzokoa bihurtu daitekeen etsai; etsai amorratua, gainera. Hiltzeraino. Hori zaila da. Horien larruan jartzea zaila da. Baina hori gertatu zen. Askotan esaten dugu ez dela errepikatuko horrelako zerbait. Oso gogorra eta latza izan zen. Gutxienez, jendeak jakin dezala zer gertatu zen eta agian aurreratzean zertxobait jakinda ez dadila errepikatu. Baina ez gaude ziur ez dela errepikatuko. Auskalo etorkizunean zer gertatuko den. Hemen ez bada



Bingen Amadoz idazleak liburu berria aurkeztuko du Lakuntzan. UTZITAKOIA

# "Min hori ixtea ez da erraza"

## BINGEN AMADOZ IDAZLEA ETA EUSKADI IRRATIKO KAZETARI OHIA

Isildutako istorioak azaleratu ditu Lakuntzarekin lotura duen idazleak 'Matones, («Para que todos lo sepan!») liburuan. Maiatzaren 27an aurkezpena egingen du Tximonena jatetxean

gertatzen, beste toki askotan gertatzen dira. Bosnia ez dago hain urrun, eta bertan gertatutakoa... eta duela urte gutxi izan zen. Bertako bizimodua eta gure ez ziren oso desberdinak. Afrika eta Hego Amerika... horrelakoak gertatzen dira gaur egun. Tamalez, jendearen izate hori hor dago. Gizakia da gizakiarendako gauzarik gaiztoena; baita onena ere. **Liburuan hiltzaileen profil orokor bat agertzen da. Zerk lotzen zituen?** Batzuetan ez ziren ezta klase berekoak ere. Paper desberdinak zituztena aberatsek. Ez zuten gauza bera egiten aberatsek edo pobreek. Pobreak normalean aberatsen azpian edo mandatupean zeuden. Aberatsek prestatzen eta finantzatzen zuten, horrelako sarraskiek finantziarioa behar dutelako. Baina lotu, eraman, tirokatu eta hori guztia haien menpekoek egiten zuten. Beraz, profil oso desberdinak zeuden.

Orokorrean, ezkutuan aberatsak zeuden eta pobreak ikusgarriagoak ziren. Zergatik egiten zuten? Hor dago fenomeno bat: fanatismo erlijioso eta politikoa. Fanatiko batek egin dezake edozein kudelkeria eta edozein gauza. Fanatismoa da gizakiaren min handia. Fanatismo horretan sartzen dira kultur gutxioko jendea, baina fanatismo sortzen dutenak kultur handikoak dira. **Elizaren papera ezinbestekoa izan zen.**

Hemen, tamalez, esan beharra dago gehienek faxismoaren alde jo zutela. Baziren bestelakoak ere. Paper handia izan zuten go-

**"TESTIGANTZETAN EZ DUT GORROTOA JASO, DENBORA PASA DA; MINA JASO DUT"**

rrotoa zabaltzen. Bere sermoietan zeharka zabaltzen eta eskatzen zuten ondokoa garbitzea. Kasu egiten zieten, asko, gainera. Paper desberdinak eta profil ere oso anitzak ziren. Sarraskian denek parte hartzen zuten. Finantzatzen zutenak, zuzenean erahiltzen zutenak baita isiltzen zirenak ere. Ez ikusiarena egiten zutenak. Errudun asko daude. **Noizbait sendatuko da?**

Hori ixtea ez da erraza. Zuzenean jaso zutenen mina ezin da desagertu. Nire kasuan nire gurasoek eta aitona-amonek jaso zuten eta dagoeneko desagertu dira. Bere bizitza osoan min hori eramaten dute beraiekin, eta gero transmititzen dute. Guk jaso dugu nahiz eta zuzenean ez egon, eta guri dagokigu errepazioa. Horretan ari gara. Testigantzetan ez dut gorrotoa jaso. Urte asko pasa dira, hasieran gehiago izango zen. Jaso dudana mina da.

Min hori ez da pasatzen. Nola kendu behar diozu mina nire aitari ikusi zuzenean haurra zela bere aita eta anaia hiltzera eramaten zituztela? Min hori ez da kentzen. Ezin da. Guregana iritsi da, eta eragina izan du. Familia hori txundituta gelditzen zen, baita etorkizuna ere. Ez zen bakarrik jendea hiltzea: lapurtu zuten, eta itxaropenak eta auke- ra kendu zieten ere.

### Liburuaren helburuetako bat errepresioa al da?

Helburua da lehendabiziko jakinaraztea. Jende askok ez zekien ezer. Oso latza da gertatuko gauza erreal horiek ez direla ezagutzen. Nik uste gure historia txikia eta gertukoak ezagutu behar dugula jakiteko hemen gauza larriak gertatu zirela. Aurrerantzean teorikoki horrelakoak ez gertatzeko. Saiatu behar gara ez daitzelako horrelako gauzak errepikatzen. Hori lortuko dugu ezagutzen bada. Faxismoak ez du berriz boterea lortuko ondorioak zeintzuk izan ziren ezagutzen bada. **Nafarroako hainbat herritako testigantzak jaso dituzu.**

Hemen sarraski gehienak toki jakinetan gertatu ziren: Iruñerrian, erdialdean eta Erriberan. Sakanan ere izan ziren, Etxarrin eta Altsasun, esaterako, baina larriena erdialdean eta Erriberan izan zen. Hor ibili naiz gehien bat kontaktu asko nituelako. Testigantza asko jaso nituen. Han mugimendu sozialak handiagoak ziren. Herri lurren mugimendua eta gatazka sozialak handiagoak ziren eta haiei erantzuna eman zieten altxatu zirenek.

### Bilaketa lan handia egin duzu.

Isiltasun handia egon da. Hori esan behar da. Herrietan zerbait kontatu da, baina isiltasun hori gaur arte mantendu da. Alde batekoek ez diote esango zure aitona hiltzaile bat zen. Ez dauka zentzu handirik ezta. Herri guztietan badakite, batez ere sufritu zutenek, zapalduen artean nor zegoen. Ezagunak dira. Testigantza horiek hor daude. Baina beldurraren beldurrez eta isiltasunaren isiltasunez alde batekoek ez dakite besteok zer dakiten. Zauri horiek sendatzen edo erreparatzen saiatu garen hamarkada hauetan ezagutzen ditugu kasu horiek. Baina zaila da isiltasuna haustea. Zaila da hori asumitzea. Oso garbi utzi behar da ezin ditugula nahastu haiek eta bere ondorengoak. Inork ez du ezer ondorengoen kontra.

# Pagola Aixitako lehenengo txapelduna

Pikuxar euskal txokoak antolatuta, Aixita I. Bertso Sariketa jokatu zen Irurtzungo kultur etxean. Sei bertsolarik parte hartu zuten, eta finalera Imanol Uria eta Eli Pagola iritsi ziren. Azkenean, Pagolak jantzi zuen txapela

## Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Aixita Bi Aizpetan kokatuta dagoen gaztelu bat da. Berreskurapen lanetan ari dira orain. Aixita ere Pikuxar euskal txokoak antolatuta Bertso Sariketa da. Lehenengo edizioa larunbatean jokatu zen, eta Euskal Herri osotik etorritako sei bertsolari gazteekin. Buruz buruko dinamiko baten ondoren, Pagolak jantzi zuen Aixita Bertso Sariketaren lehenengo txapela.

Saioa Alkaiza Guallar eta Iker Gorosterrazu Elizagoien nafarrak dira, Xabi Igoa Eriz arabarra, Eli Pagola Elizagoien gipuzkoarra, Maddi Ane Txoperena Iribarren lapurtarra eta Imanol Uria Albizuri bizkaitarra; seiak Aixitako lehenengo parte hartzaileak izan ziren eta Zigor Gartzia Zian gai jartzaileak proposatutako gaiak erantzun zituzten. Kultur etxeko edukiera bete zen, eta antolatzaileen esanetan "giro goxoa eta berezia" sortu zen.



Aixita I. Bertso Sariketako parte hartzaileak. UTZITAKOIA

Bertso sariketa bi zatitan jokatu zen: kanporaketa eta buruz burukoa. Kanporaketan "kalitate handiko bertsoaldiak" entzun ziren eta finalera Pagola eta Uria pasa ziren, puntuetan oso berdinduak. Buruz burukoa oso azkarra eta bizia izan zen, eta bertsolariak "bikain" aritu ziren. Anapurnako igoeran, kale zurruetan, maiatzeko ziza bila edota haien gorputzaren onar-

penaz kantatu zuten eta publikoaren txaloak eragin zituzten.

Azkenean, Eli Pagola Apezetxea izan zen Aixita I. Bertso Sariketaren txapelduna. Txapela Allin jaiotako Manu Legarra irurtzundarrak jarri zion. Legarrak bertsoarekiko lotura handia izan du beti, besteak beste, txapelketaren antolaketan urte asko ibili da, gai jartzaile taldean aritu zen eta bertsolari gisa ere aritzen da.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA

## 'Kauboi' alienen aurka

Denbora eta karaktereak ez xahutzeko gaur zuzenean noa harira. Askotan eskatu didate komikiei buruz gomendioa. Zein irakurri? Hau gustuko izango al dut? Beste hau ona al da? Zaila da erantzuten, gustua ipurdiak bezala baita: bakoitzak berea dauka eta hau beti politena. Horregatik, zein komiki EZ irakurri gomendatuko dizuet. Hala da, nik irakurriko dut zuek irakurri ez dezazuen. Ez horregatik.

*Cowboy vs Alien* komikiarekin inoiz errepikatu ez den gertaera bat pairatu nuen: lagun bati utzi nion irakurri zezan. Lagunak komikia galdu egin zuen eta honek poztu egin ninduen. 2006an kaleratu zen. 116 orrialdek osatzen dute. Ene ustez gutxiegi dira, baina ez gaitzezen aurreratu. 1873an Estatu Batuetako indiar kolonia batean, estralurtar enperadore tirano batek espaziontzian lur hartzen du. Tokiko jendea esklabo gisa hartzen du. Bertako indiar eta cowboyek elkarrekin lan egingo dute estralurtar

enperadorea akabatu eta mundua salbatzeko.

Istorio hau irakurtzeko fantasian sinistea eskatzen du. Hasiera batetik ikuspegi zientifikorik ez dagoela argi balego ere. Pertsonai protagonistak oso topikoak dira: badago "llanero solitario" bat, indiar buruzagi jakintsua, cowboyaren lagun erromantikoa... Gainera istorioak ez du denborarik hartzen ezin pertsonalitaterik sakontzeko. Dena presaka gertatzen da, eta horrek trama behartua dagoenaren sentsazioa ematen du. Hau, noski, tamainagatik da. Istoria Estatu Batuetako lurraldeetako kolonialismoaren metafora (batere sotila) da. Halako gai konplexua jorratzeko egitura bat behar da, xehetasunak mimo handiz lantzea...

Formalki ez dut krudela izan nahi, baina ai ene... Marrazkilaria ez da batere ausartu bineten konposizioan. Guztiak karratuak. Marrazkiek grazia falta handia dute. Pertsonaien poseak ez dira batere dinamikoak. Estilo amerikarra, trakets erara. Eta koloreak nire lehengusu txikiak Plastidecor kaxa batekin egin dituela ematen du.

Ez irakurri komiki hau zure denborari estimua badiozu!!!

## Clown baten hastapenak oholtzan

Patxi Larreak zuzendutako Clown tailerraren emanaldia izan zen Irurtzungo kultur etxean

### IRURTZUN

Ikuskizuna baino astelehenean ikasturteko amaierako erakustaldi bat eskaini zuten Clown tailerreko parte hartzaileek, Lorena Arangoak azaldu bezala. *Lorena Arangoa eta adiskideak* izenburuan tailerreko hamar kideek ikasturtean zehar ikasitako erakutsi zuten Irurtzungo kultur etxearen oholtzan, baina erakusteko modua ere berezia izan zen. Clowna ikastea ez bada nolanahikoa. Patxi Larrea irakaslea eta zuzendaria izan da.

Hamar clown eszenatokiaren gainean. Geldi. Bat-batean musika entzuten da eta oholtzako pertsonaiak mugitzen hasten dira. Astelehenean Clown tailerrak egin zuen emanaldia deskribatzeko hitz bat bilatu behar bada sorpresa da hitza. Joko baten bidez hasi ziren eta inprobisazioaren bidez parte hartzaileak aurkeztu ondoren, bakoitzak clown saio bat egin zuen.

Hamar kidek parte hartu dute Clown tailerrean. Iruñeko Kale nagusiko Plazara espazioan egin zuten, baina pandemiaren



Patxi Larreak zuzendutako Clown tailerraren emanaldia, Lorena Arangoa irurtzundarrak parte hartu zuen. UTZITAKOIA

neurriak gora eta behera itxi zuten. Alternatiba bat bilatu zuten, eta Irurtzungo kultur etxean jarraitzea erabaki zuten. Lorena Arangoa da sakandar bakarra, Aizarozko, Etxauriko, Iruñeko eta abarreko jendea izan da Irur-

tzen clowna ikasten. Talde murriztua zenez, kultur etxeko gela handia aproposa zela azaldu du Arangoak. Beraz, "truke edo eskertza moduan" Clown tailerrak emanaldia egin zuen kultur etxean, "etxeokendako": "Giro polita sor-

tzen da guk ez dugun bitartean ikusleak garelako ere". Irurtzungo kultur etxean egindako egonaldien ondoren, ikasle berriak izan ditzake tailerrak: "Irurtzungo antzerki tailerreko baten batek interesa azaldu du".

# Musikari nafarrak sustatzeko bertsioak

Iruñeko Udalak Nafarroako 28 musikari bildu ditu eta haien arteko fusioarekin hamar abestiez osatutako 'PamploSound' online bidezko jaialdiaren bigarren edizioa antolatu du. Olatz Andueza musikari lakuntzarrak parte hartu du egitasmoan

**Erkuden Ruiz Barroso** LAKUNTZA  
Bigarren urtez Iruñeko Udalak *PamploSound* jaialdia antolatu du hiriko eta Nafarroako musikariak eta kultura sustatzeko. 28 musikariek parte hartu dute eta hamar abesti interpretatu dituzte, tartean Olatz Andueza lakuntzarrak. "Egia esan ez nuen orain arte ezagutzen". Musikariak azaldu duenez proiektuaren helburua "bertako musikariei ikusgarritasuna" ematean da.

Proposamena Juantxo Skalarik egin zion. "Berari eskaini zioten abesti bat jotzea eta askotan berekin jo izan dudanez Skalaririk taldean ea animatzen nintzen esan zidan eta baiezkoa eman nion". Anduezak Skalaririk taldearen 25. urteurrenean kolaborazioak egin zituen ere, "eta noizean behin hor ibiltzen gara Juantxoarekin saltsa guztitan". *PamploSound*-erako "zerbait akustikoa" nahi zuten, eta *Rudi not dead* abestiaren bertsioa egitea pentsatu zuten, Juantxo Skalarik eta Rude Band-eko aurreko diskoaren abestia.

"Zerbait desberdina" da jaialdiaren ideia. Musikarien arteko fusioak bultzatzen ditu, eta estilo desberdinetako abestiak plazaratzen ditu ere, bertsioen bidez. Juantxo Skalaririk eta Olatz Anduezarekin batera Haimar Arejita Gatibu taldeko gitarra jolea, Endika Iriso Roten XIII-ko taldekidea eta Juanma Urriza Boli Skalaririk taldeko bateria jolea izan zena aritu ziren *Rude not dead* bertsioa akustikoa egiten. "Pare bat" abestiren artean zalantzan egon ziren, baina Irisok ere ahotsa sartu behar zuenez, erosogoa sentitzen zen abestia aukeratu zuten. Gainera, "entseguak ezin izan ditugu egin, bat Katalunian bizi delako, bestea Bizkaian...". Teknologia berrien bidez "puzzle moduan" bakoitzak bere zatia grabatzen zuten.

Grabazioaren aurretik elkar-tu ziren, goizean goiz, abestia



Olatz Andueza musikari lakuntzarrak 'PamploSound' jaialdian parte hartuko du.

## OLATZ ANDUEZAK 'PAMPLO SOUND' JAIALDIAREN BIGARREN EDIZIOAN PARTE HARTU DU

entseatzeko eta ondoren abestiaren eta bideoaren grabazioa egin zuten. "Ez dakit zenbat aldiz jo genuen; lehenengo frogatik bat egin, gero beste bat...". Bideoa Iruñeko Arrotxapea auzoan dagoen Iwer eraikinean grabatu zuten, Matesa zeta lantokia zena. "Eraikin ikusgarria da, eta joko asko ematen du". Iritsi zirenean "ez zirudien" Iruñean zeudela: eszenografia zuhaitzez, landarez eta txorien irudiez osatuta zegoen. "Jamaican geundela zirudien". Dena sorpresa izan zen, "ez genekien nora gindoazen".

### Beharrezkoak

Musikarien egoera "izugarri gogorra" izaten ari dela esan du Anduezak. Horregatik *PamploSound* bezala ekimenak "beharrezkoak" dira. "Sektorea aurretik zigortuta zegoen, sektore bat da non asko beste lan batzuetan

ari garen eta oso zaila aurrera egitea. Egoera honek kriston kolpea eman dio". Anita Parker taldean eskaini dituzte kontzertuak ere horrelako egitasmoen bidez izan direla azaldu du: "Instituzioek antolatutako jaialdiak eta horrelakoak. Bestela, streaming bidez". Baina ez da berdina: "Publikoaren kontaktu hori ez dago, eta guretzako beharrezkoa da ere". Behar dute. "Erakutsi da kultura segurua dela. Aretoetan neurriak hartuz eta protokoloak jarraituz ez dago arazorik".

Kontzertuak aldatu dira, hori bai. "Lehenengo kontzertua egin behar genuenean esaten genuen, baina nola izango da jendea eserita?". Ez zela hain dramatiko izan aitortu du. "Buelta eman genion. Jendeak ezin du dantzatu, baina jendea horretara dago: entzutera eta ikustera". Egoerari alde ona ikusi diote, baina "taldea bizirik dago zuzenekoak badaude".

Koronabirusak eragindako egoera eta konfinamendua disko berria egiteko aprobeztatu du Anita Parker taldeak. "Nik uste guztiak ari garela prestatzen". Aurretik aurreikusita zuten, eta ez zaie gaizki etorri egoera. "Ez dugu gehiago itxoin behar".



Afu taldea Lakuntzan izanen da larunbatean. UTZITAKOIA

## Ezin estilo bakar batean sailkatu

Afu talde barañaindarrak 'Larruazalean' diskoa aurkeztuko du bihar, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

### LAKUNTZA

2007. urtean "bizpahiru" lagun Barañaingo gaztetxean musika jotzeko eta ongi pasatzeko "besterik gabe" elkartzten hasi ziren. Ohitura bat bihurtu zen eta jendea batzen hasi zen. Gustuko zituzten taldeen abestien bertsioak jotzen zituzten, eta azkenean jai eta txozna batzordearen deia jaso zuten: "ea zergatik ez genuen jotzen herriko festetan esan ziguten. Eta horrela jo genuen lehenengo kontzertua". Afu taldea sortu zen, Ion Erro Arbizu taldeko kideak azaldu duen bezala. "Ez genuen inongo helbururik, eta poliki-poliki ia hamabost urte pasa dira". Taldeak laugarren diskoa publikatu zuen 2020an: *Larruazalean*. Bihar, maiatzak 22, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko dute.

"Egia esan, ezin dugu gure musika estilo bakar batean sailkatu". Laugarren diskoa kale-ratu dute, eta taldearen ibilbidean "estilo desberdin asko" landu dituzte: boleroak, salsa, reggae, swing, doinu balkanikoak... "Denetarik egin dugu, probatzea eta gauza desberdinak entzutea eta sortzea gustatzen zaigulako". *Larruazalean* diskoak ere berrikuntzak ditu, "rockeroagoa" dela aipatu du Errok, baita aurrekoetako abestiek antza dutenak ere badaude. Taldearen formazioan aldaketa txiki batzuk egon dira, eta "lehenengo aldiz gitarra elektrikoak erabili ditugu, baita bateria ere". Orain arte perkusio instrumentu "txikiak" era-

biltzen zituzten, kongak edo kaxoia, esaterako. Diskoarekin "oso pozik" gelditu ziren.

### 'Larruazalean'

Laugarren diskoaren sorkuntza eta grabaketa prozesua 2020. urte hasieran egin zuten. "Prozesua aurreko diskoetan bezalakoa izan zen ordura arte ez genekielako zer zetorkigun gainera". Diskoaren diseinuarekin eta "ondorengo lan horiekin" ari zirenean, martxoan "kristo hau", pandemia, heldu zen, eta erabaki zuten grabatutakoa sareetan jartzea. "Bestela, zain egonez gero, auskalo". Jendea etxean zegoenez musika entzuteko denbora zuela gaineratu du Errok.

Pandemiarekin emanaldiak egiteko modua aldatu behar izan du Afu taldeak ere. "Egia esan ez da gure ohikoa den zirkuitu bat. Orain, nolabait esateko, formalagoak dira: kultur etxeetan eta abar". Disko berriaren aurkezpenarekin ari dira orain, eta Lakuntzan bihar egon aurretik zenbait kontzertu eman dituzte, Berriozarko kultur etxean eta Katakrazen, esaterako. "Baina ez ditugu asko eman".

Azkeneko diskoaren aurkezpen kontzertuak direnez, abestiak diskoan agertzen diren bezala egiten dituzte: "horrela sortu dugulako eta horrela egin dugulako. Hori da erakutsi nahi duguna". Baina disko berritik kanpo aurreko kantak aukeratzeko orduan lasaienak edo "giroarekin bat" egiten dutenak hautatzen saiatu dira. "Ez da erraza, baina saiatzen gara".

# "Ikasturte amaieran musikal bat egin dugu"

Barañaingo Alaitz BHIko hainbat ikaslek musikal bat sortu dute ikasturte amaierako. Tartean bost sakandar daude: Amaiur Goikoietxea altsasuarra, Miren Irisarri altsasuarra, Izadi Barandiaran bakaikuarra, Iزارo Begiristain etxarriarra eta Ibai Lumbreras arbizuarra

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

## 1 Arte Eszeniko, Musika eta Dantza batxilergoa ikasten duzue, zergatik?

**Amaiur:** Dantzaren eta musikaren mundua gustatzen zaizkit.

**Miren:** Musikaren mundua gustatzen zait ere.

**Izadi:** Iturramara joan behar nintzen, baina aurretik hemen egondakoek gomendatu zidaten esperientzia polita zelako.

**Izaro:** Ni ere musikarengatik eta mundu hau gustatzen zaidalako.

**Ibai:** Mundu hau gustatzen zait ere, eta horretan lan egitea gustatuko litzaidake.

## 2 Oraindik batxilergo mota ezezaguna da. Zertan datza?

**Amaiur:** Orain ezagutarazten ari da; Sakanako jendea etorri da. Esperientzia oso ona izaten ari da. Hasieran pixka bat lotsa dena berria zelako, baina orain oso gustura.

**Miren:** Sakanarekin alderatuz aldatzen da.

**Izadi:** Giroa, batez ere.

**Ibai:** Zure mundua zabaltzen duzu.

## 3 Nolako da zuen ikas egun bat?

**Izadi:** Urte amaieran musikal bat egin behar izan dugu,



Izaro, Amaiur, Ibai, Miren eta Izadi Barañaingo Alaitz BHIko ikasleak. UTZITAKOA

eta ebaluaketaren arabera gauza desberdinak egin ditugu. Adibidez, azken ebaluaketan jo eta ke musikalarekin egon gara.

**Miren:** Hasieran gehien bat teoria izan zen.

**Amaiur:** Gitarra ikasi genuen ere. Dena musikalera bideratuta dago.

**Izaro:** Egunean zehar irakasgai tronkalak ditugu, eta gero modalitateakoak direnak. Horietan egon gara prestatzen.

## 4 Musikala 'Lurperatutako aho-tsak' deitzen da. Nola prestatu duzue?

**Izadi:** Gaia irakasle batek proposatu zuen eta ados egon ginen.

**Amaiur:** Musikala eszenaka eta taldeka antolatu genuen eta gero bakoitzak bere eszena prestatu behar zuen.

**Izaro:** Batzuk arropa taldean zeuden, beste batzuk koreografiak muntatzen...

## 5 Zer kontaktzen du?

**Amaiur:** Gerra zibilaren garaian Lodosara zirku italiar bat iritsi zen. Egun batetik bestera denak desagertu ziren. Badauka kutsu nahiko fantastikoa ere.

**Miren:** Errealitatean oinarrituta dago, baina gero atzetik asmatu dugun beste istoria bat dago.

## 6 Ikerketa lana egin behar izan duzue?

**Izaro:** Bi dokumental ikusi genituen eta zalantzan egon ginen Ezkabakoa egitean. Lodosakoa egitea erabaki genuen. Gero talde bakoitzak bere zatia ikertu du.

## 7 Nolako izan da talde lana?

**Miren:** Adibidez, dantza taldeak koreografia egiten zuen eta besteak erakusten zien.

**Izadi:** Ikasturte hasieran esan ziguten ikaskideekin gatazkak egongo zirela, baina ez da hala izan.

## 8 Klasean ikasitakoa praktikan jarri duzue?

**Amaiur:** Uste dut azterketa izango zena musikala egitea dela. Ikasten duzu bai ala bai. Elkarlanean aritzen eta sortzen ere ikasten duzu.

## 9 Zein da zuen papera musikalean?

**Amaiur:** Mundu fantastikoan dantza egiten dut eta zirku protagonista naiz. Dantzik natorrenez dantza egitea ez zait

hain zaila egin, baina antzezpena bai. Antzezten dudan lehenengo aldia da.

**Miren:** Zirku pertsonaia bat naiz. Berez ez dugu hitz egiten, eta dantzak nahiko errazak dira. Ikuskizunari indarra ematen diogu.

**Izadi:** Amonaren papera egiten dut eta mundu fantastikoan ere dantza egiten dut. Dantza egiten dudanez, alde hori erraza izan da. Amonaren papera kostatu zait, aurretik ez dudalako egin. Ahotsa proiektatu behar da eta paperean sartu.

**Izaro:** Zirku pertsonaia bat naiz, eta gero koroan nago ere. Koroan denak agertzen gara. Kantatzen oso gustura. Normalean ez dut kantatzen eszenatoki batean, eta ongi.

**Ibai:** Zirku pertsonaia bat naiz eta koroan ere abesten dut. Ez dut hitz egiten, baina hasieran pentsatzen nuen gehiago kostatuko zitzaidala, eta ez da hain besterako izan.

## 10 Aurretik agertokiaren gainean esperientzia zenuten?

**Izadi:** Dantzan.

**Amaiur:** Dantzan, eta pianoa eta abesten.

**Izaro:** Instrumentu bat jotzen dut eta musika emanaldiren bat egin dut, baina beste pertsona batzuekin batera ez.

## 11 Lodosan mustu zenuten, eta gaur Burlatan egonen zarete. Zer moduz urduritasuna?

**Miren:** Bi saio egin genituen edukieragatik jende gutxi sartzen zelako eta lehenengoan oso urduri geundean. Hurrengoan gehiago disfrutatu genuen. Burlatakoak kurtso amaiera dela esan nahi du, eta berezia izango da.

**ERAMAN  
ZURE MARKA  
BESTE MAILA BATERA**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA